

«Euskal dantza tradizionalaren etorkizuna oso ilun ikusten dut»



SABIN EGIGUREN APRAIZ
Bizkaia Euskal Dantza Eskolaren sortzailea

hiruka

123. zenbakia

2018ko apirilaren 19tik 25era arte



Kanpomartxo, mende laurdeneko ibilbidea

Berbots Erandioko euskaltzaileen topaguneak jaio eta gutxira antolatu zuen lehenengo Kanpomartxo, 1994an, Faoetan. Aste-akabuan 25. urteurrena ospatuko dute Akarlandan eta Astrabuduan. Marian de la Fuente Berbotseko kide zenari agur beroa emango diote.

APARKATZEKO ARAZOAK GORLIZEN | 6

TAO IPINIKO DUTE EKAINETIK IRAILERA

Uda aldian udalerrian aparkatzeko arazoari aurre egin guran, TAO sistema ipintzea erabaki du Udalak, asteko zazpi egunetan.

AURREMATRIKULAZIO SASOIA | 9



HEZKUNTZA GEHIGARRIA

Erdiko orrietan, eskualdeko ikastetxeen eskaintzak.

BONBARDAKETAK URIBE KOSTAN | 18

HERRITARRAK BELDURTZEA HELBURU

Matxinatuen zerbitzura zeuden hegazkin alemaniarren eta italiarren bonbek gogor astindu zuten eskualdea, 1936ko gerran.

KIROLAK | 20

IBON LARRINAGA, AUKERA BERRIEI BEGIRA

Boxeo profesionalean urte bi daroatza Ibon Larrinagak. New Yorkeko Madison Square Garden-en lehiatuko da.

«Kanpomartxon lortu gura genuen»

Berbots Erandioko euskaltzaleen topaguneak jaio eta gutxira antolatu zuen lehen Kanpomartxo, 1994an. Hala, aste-akabuan 25. urteurrena ospatuko dute. Marian de la Fuente Berbotseko kide zenari omenaldia egingo diote.

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Aurten 25 urte beteko du Kanpomartxok, aste-akabu hone-tan. Zer berezitasun egongo dira? EIDER BELASKO: Jaia domekan bakarrik ospatu beharrean, ohiko Kanpomartxo dena, barikutik hasiko gara. Gura genuen zer edo zer xumea egin, gure artekoa, eta Motaganen edukiko dugu Mursego kantautorearen emanaldia. Zapatuan, berriz, lotuta daukagu dantza-plaza. Adi! 19:00etan izango da, ordutegia ordu erdiz aurreratu delako. Ondoren, Garilak 26ren kolaborazio berezia egongo da, eurek egin zutelako Kanpomartxoren kanta garai batean. En Tol Sarmiento taldeagaz jardungo dute. Domekan, Akarlandan ospatuko dugu Kanpomartxo. Leku berezi bat hautatu zen 25. urteurrenerako, auzoetatik kanpo, orain arteko ohitura moldatuta. Akarlanda Erandioren barruan dagoenez eta parkea gune handia eta berdegunea denez, gure ospakizuna han egitea erabaki genuen, ohiko formatuan.

Domekan zertaz gozatu ahal izango da? JOSU ZARATE: Jendea goizean goiz abiatuko da harantz. Ailegatzean, 10:00etan, agur beroa emango diogu gure Marian zenari. Ostera, 11:00etan hasiko dugu ohiko programazioa; Musika Eskolako trikitilariak eta pandero-joleak alaituko dute giroa. Ondoren, herrian dauzkagun hiru dantza-taldeen emanaldia izango da, eta ostean bertsotan ibiliko dira payatarrak, Fredi eta Xabi. E. B.: Itxaso ere gonbidatuta zegoen, baina ezin zuen. J. Z.: Guretzat bikote hori berezia da, Kanpomartxora ia urtero agertu direlako, nahiz eta eurek bertso-saiorik ez eduki. Lehenengo aldiz etorri zirenean gazte-gaztetxoak ziren, zer edo zer esateagatik. Ondoren, sabelera ere zerbait sartu behar denez, herri-bazkaria egongo da. Alde batetik, bakoitzak berea ekarrita eta, beste aldetik, paella prestatuko da denontzat. Txartela bertan har daiteke.

Eta arrastian? J. Z.: Bazkaldu ostean, Kanpomartxoko beste lagun on eta zahar bategaz izango gara, Roberto Etxebarriagaz. Kantaguneak lagunduta hainbat kantu abestuko ditugu. Umeentzako erromeria berezia izango da geroago, eta ondoren nagusioi tokatuko zaigu gorputza astintzea, Luhartz taldeagaz. Horiek ere urterokoak. Eta gero, datorrena datorrela!

Umeek ere euren plana egin dezakete, ezta? E. B.: Umeentzat badira tailerrak, goizean, eta puzgarriak, goiz eta arrastian. Gainera, gurasoen elkarteek arrastian umeentzako jolasak eta disko-festa edo erromeria antolatuko dituzte. Bestalde, aurten nobedade modura, Akarlandan dagoen Forestal Park abentura-parkean aukera dago bidaiatzeko, baldintza batzuekaz. Horretarako txartela txosnan hartu eta bertako etxolara joan, hama-bi euro ordaindu eta ordutegian izena eman daiteke. Sei urtez gorako denek aukera daukate.

Kanpomartxoko ekitaldi bat Astrabuduan izatea nobedadea da, ezta? J. Z.: Bai. Berbots 1993an sortu zen eta kezka genuen kan herriari zelan ezagutarazi euskara-elkarte bat sortu zela, zertarako zen, zer egin gura zuen, zer ez zen egin behar, zein zen helburua eta abar. Horren bueltan ibili ginen. Batzuk gaz-



Domekan Akar



Lehenengo edizioa Faoetan, 1994an

Lehenengo urtean, Berbotseko kideak hasi ziren berba egiten herriko hainbat kultura-, dantza-, kantu-talde eta bestelako elkartegaz. Faoetako auzo-elkartekoak ere agertu ziren. Zaratek akordura ekarri duenez, komentatu zuten: «Gure auzoa hau egiteko leku polita litzateke, mendi-magalean, bistak ederrak dira eta zuek bilatzen duzuen ingurua da, leku egokia izan daiteke». Sorpresa polita izan zen: eguraldi izugarri ona egon zen eta herriko jende askok galdetu zigan «baina hau Erandio ote da? Ez dut ezagutu orain arte». Bistak benetan ederrak dira, handik Txorierri osoa ikus daiteke. Jendea harrituta geratu zen.

tetan ibiliak ginen Erandioko auzoetan galdetzen Aratustee-tan zer edo zer egiten ote zen eta lortu genuen informazioen artean zahar batek esan zigun bere gazte-garaian kuadrillan edo familian egiten zutela udaberri-hasieran landa batera edo mendira joan, han sua egin eta bazkaldu. Ideia hori hartu eta euskararen gaineko ikuspegia eman genion. Herriko hainbat taldegaz berba egin genuen, bakoitzak bere ekarpena egin zezan, zekiena egiteko. Landan egin beharra zegoenez hori, aha-legindu ginen kaleetatik ateratzen: auzo nagusietan ez dugu inoiz egin, ez Altzagan eta ez Astrabuduan. Bai egin dugu Erandiogoikoan eta Lutxanan, nahiz eta Lutxanan asfaltoa egon, baina tamaina txikiko auzoa da. Beti saiatu gara hiri-nukleoetatik aparte egiten. Baina aurten berezia denez, Astrabuduari horrelako keinu bat egin diogu. E. B.: Beste batzuetan, bezperetan ere izan dira ekimenak, Erandiogoikoan Ruperrek jo zutenean, barbarako. J. Z.: Bai, 20. urteurrenean zer edo zer berezia egin genuen hor ere.

Jendeak galdetzen dizue zer esan gura duen 'Kanpomartxo' berbak? J. Z.: Ez. Ez dakit dakiten edo ez, baina ez dute galdetzen. E. B.: Batzuek diote «martxotik kanpo» dela, kar, kar, kar! Ez dute ikusten batzuetan martxoan egiten dela? J. Z.: Agian azaldu behar da nondik datorren: martxoagaz ez dauka inolako zerikusirik. Nik jasotako informazioa zen udaberri-hasieran egiten zela. Hala, lotu ginen martxo-apirilean, Aste Santu inguruan, baina izatez, benetan, Aratusteen aurreko domekan egiten zuten. Eta izena dator «kanpora artxo» esa-

n helburua hasieratik lortu dugu»



landara igotzeko, autobus-zerbitzuak erabiltzea eskatu dute antolatzaileek. HODEI TORRES

Kanpomartxon agur beroa emango diote Marian de la Fuente zenari

Domeka honetako Kanpomartxo oso berezia izango da. Izan ere, 25. urteurrena ospatzeaz eta Akarlandan lehenengo aldiz egiteaz gainera, Marian de la Fuente Pampliega euskaltzale erandioztarrari agurra emateko momentua izango da. Berbotsek deituta, goizeko 10:00etan egingo zaio agur-ekitaldia elkarteko kide eta arima zenari, festa-giroan. Bertaratzeko, autobusa ipiniko dute. Joan den zapatuan zendu zen, 49 urte zeuzkala, Altzagako bere etxean, gaixotasun larri baten ondorioz. Marian de la Fuentek urte mordoa eman zuen euskalgintzan beharrean, AEKn, Berbotzen, HIRUKAn... Gainera, kulturgintzan eta eskubide zibil eta politikoak defendatzen ekarpena ere egin zuen, ohiko izaera alai, abegikor eta eskuzabalez. Agur eta ohore. Eskerrik asko denagatik!



Sarritik Borobiara

Eskerrik asko, Marian

PAUL BILBAO SARRIA Kontseiluko idazkari nagusia

Azkenengoz, otsailean, Martin Ugalde Kultur Parkean egin genuen topo, hain zuzen ere *Euskaldunon Egunkariaren* itxieraren hamabosgarren urteurrenean. Euskara, euskalgintza, euskaltzaleasuna zainetan zeneramatzan, eta gure hizkuntzaren aurkako orduko bidegabekeria salatzeke ekitaldian ere egon nahi zenuen. Gorputzak zirrara egin zidan ikusi zintudanean, eta zure ohiko irribarrea, duintasuna eta determinazioa izan nituen erantzun. Finean, hamaika hitzek definitzen zaituzte / zintuzten, baina horietatik hiru hizki gorritz zihoazen: irribarrea, duintasuna eta determinazioa.

Joan egin zara, bai, Marian. Zarata handirik egin gabe. Egia da bagenekielaz bazindoazela, baina ez genuen joaterik nahi. Akaso horrexegatik oraindik ere uste dut euskararen aldeko hurrengo ekimenean topo egingo dudala zurekin. Ekimen horretan etorriko

zatzazkit, irribarrea ahoan izango duzu eta alaitasuna transmitituko didazu. Alaitasuna ez ezik, kementa ere bai. Finean, euskararen aldeko militante nekazina izateaz gain, beti goraipatu izan dut zure alaitasuna. Euskal Herri euskaldunaren ibilbide neketsuan, ibilbide hori eginkizun alai bihurtzen zenuen

Handia, jatorra eta zintzoa hitzak izan ziren zendu zinela burura etorri zitzaizkidan lehenengo hitzak. Horiexek ditut orain ere. Eta, zu bezalakoekin, ez dut inolako zalantzarik, Marian, Euskal Herria berandu baino lehen euskaldunduko dugula. Zure moduan, euskaltzaleasuna bizimodu bihurtuta, ahalduz iraunkorra egiten duten herritarrei esker bizkortuko da euskararen normalizazio-prozesua.

Egun handira arte, euskararen malabarista, trapezista eta funanbulista. Egun handira arte, Marian. Itzeleko plazera eta ohorea izan da ezagutu izana.

moldetik, okela jateko azken domeka hura zelako; gero Gari-zuma sartzen zen. Beste leku batzuetan Txitxiburduntzi edo Basokopeitsu esaten diote. Guk pasatu genuen udaberrira eta baten batek esan zigun «zelan egiten duzue kanpomartxo apirila amaieran? Hori da Aratusteak baino lehen!». Baina daborduko hasiak ginen Aste Santuaren bueltan egiten, eta gainera otsailean egunak laburtxoagoak dira, 18:00etan dagoeneko iluna da eta sasoi honetan, oster, 20:30ean oraindino argia dago. Bestaldek, eguraldia ere suposatzen da hobea izango dela. Hala izan da orain arte: 25. edizioa izango da hau eta orain artean euria birritan edo hirutan bota du, gehiagotan ez. Aurten espero dezagun ezetz, baina aurtengo negua berezia da. Udaberrian baino neguazkenean gaude. E. B.: Edozein kasutan, karpa daukagu!

Zelan antolatu zenuten lehenengo Kanpomartxo? J. Z.: Gogorra izan zen! Jaia prestatzeko, Jokin Malats-Etxebarriak ETBko *Gezurra nagusi* txapelketan parte hartu eta «orduko» 180.000 pezeta eskuratu zituen. Erandioko jende gehiago joan zen hara, tartean gure Marian. Jose Felipe Auzmendik aurkezten zuen saioa. Bestalde, Kanpomartxoren aurreko egunean ibili ginen txosna muntatzen, gaua han ematen txosna zaintzeko; domeka gauean ere baten batek geratu behar izan zuen zaintzen... Gainera, kuadrillatxo bat egon zen han, botatzeko modurik ez zegoena... eta ez dakit zein orduan amaitu zuten... edo genuen... Lortu gura genuen helburua lehenengo ediziotik lortu genuen: elkarlanean eta komunean antolatzea. ◀

URIBE KOSTA | Gure Esku Dago

Herritarron Ituna, Donostiatik Gasteizera



Ekainaren 10eko giza katean 11 kilometro bete beharko dituzte Uribe Kostako herritarrek, Amurriotik aurrera. HIRUKA

Urtarriletik hona erabakitze eskubidearen askotariko arrazoiak bildu ditu Gure Esku Dagok Herritarron Itunean. Ekainaren 10ean dokumentua aurkeztuko dio Legebiltzarrari, eskubide hori Estatutu berrian sartzeko asmoz.

IKER RINCON MORENO ►

Bilbo, Donostia eta Gasteiz batuko ditu Gure Esku Dago dinamika ekainaren 10ean giza kate «erraldi» baten bidez. Donostiatik abiatu, Bilbotik pasa, eta Gasteizen amaituko da, Eusko Legebiltzarraren atarian. Izan ere, Herritarron Itunean jasotako erabakitze eskubidearen aldeko arrazoi denak plazaratzeko baliatuko dute egun hori.

Urtarriletik hona, erabakitze eskubidea «edukiz bete» dute herritarrek, «zergatik eta zertarako» erabaki gura duten adierazteko. «Prozesu parte-hartzaile baten bidez bildu ditugu ideia horiek denak. Arrazoiak ezberdinak dira, eta baliteke norbait denekin ados ez egotea; hori ez da helburua. Helburua da denak batzea», azaldu du Iñaki Frierak Gure Esku Dagoko taldekideak. Getxon, berbarako, hilabeteotan aurrera eramandako prozesuari esker erabakitze eskubidearen aldeko 190 arrazoi bildu zituzte. Orain horiek denak Euskal Herrian proposatutako gainerakoak batu behar dira, «asko errepikatu egin direla-

2019

urtean fase berri bat hasiko da Euskal Herrian: Nafarroako hauteskundeak, EAEko foru-hauteskundeak eta udal-hauteskundeak.

Aro berri hori buruan izanda, Gure Esku Dagok 2019 arrazoi bildu gura ditu Herritarron Itunean.

201,9

kilometro edukiko ditu ekainaren 10eko giza kateak, 2019an hasiko den fase berria irudikatzen.

ko herri bat baino gehiagotan». Behin horiek denak batu ondoren, dokumentu horren gainean mobilizazio handia egin gura du Gure Esku Dagok ekainaren 10ean, Eusko Legebiltzarrean Estatutu berria adosten dabilen Autogobernu Batzordeari erakusteko «herritarrok erabakitze eskubidea Estatutu berri horretan sartzeari nahi dugula».

Gure Esku Dagoren erronka ekainaren 10erako Euskal Herriko hiriburu denak batzea bazen ere, azkenean EAEko hirurak baino ez zituzte batuko; «Nafarroa Garaian, Baxenabarren, Lapurdin eta Zuberoan bestelako erritmoak dituzte, eta euren errealitateetan murgilduta daude gaur egun», azaldu du Frierak. Hala, egun horretako giza katea osatzeko gutxienez 100.000 lagun beharko direla iragarri du GEDk. Uribe Kostari dagokionez, hamaika kilometro osatzea egokitu zaio, Amurriotik (Araba) aurrera. Frierak adierazi duenez, kilometro bakoitzean 500 lagun egoitea espero da; hortaz, eskualdeko 5.500 pertsona mobilizatzea da aurtengo erronka. «Herri ikuspegia eman behar zaio mobilizazioari; deia egiten dugu jendea animatzeko norbere herriari dagokion kilometroa osatzera joatera». Horretarako, autobusak antolatuko ditu Gure Esku Dagok herriz herri, zazpi euroan. Horrez gainera, aldeztu aurretik kilometroan parte hartzeko izena eman beharko da, bost euroan. «Diru hori dena mobilizazioa eta dinamika bera finantzatzeko izango da», argitu du Gure Esku Dagoko kideak. ◀

Pentsalekutik



MAITANE
NEREKAN
UMARAN
EH Bildu

Pilates-eskola bertan behera

Gaur ez dut pilates-eskolarik eduki. Ez da jaieguna eta irakaslea ez dago gaixorik. Irakaslea langileon eskubideengatik lanean dago. Getxo Kirolakeko ikastaroen erabiltzailea naiz aspalditik. Zumba, aerobik, pilates... Nire osasunagatik ere lan egiten duten profesional horiei elkartasuna erakutsi nahi diet. Nire betebeharra ere badela uste dut.

Getxo Kirolakeko langileak udal-langileak dira. Ikastaroetan parte hartzen dugun ikasle guztiok udal-zerbitzu batean ematen dugu izena. Horrela saltzen du Udalak Getxo Kirolak ematen dituen zerbitzu «bikainen» propaganda egin nahi duenean (Kirol Hiria izendatu zutenean Getxo, ez al zituen ikastaroetako ikasleak eta irakasleak erabili bere propaganda-bideo eta argazki erraldoietan?). Baina lan-baldintza duinez ari garenean, EAJ eta PSEko udal-gobernuko arduradunek diote horiek enpresa pribatu bateko langileak direla eta Udalak ez duela zerikusirik. Barkatu? Kirol-instalazio publikoetan lan egiten dute, diru publikoaz ordaintzen zaie, udalaren izenean lan egiten dute... Udalak ez du zeresanik horretan?

Eskatzen dutena oinarritzeko da. Udan kaleratzen dituzte urtero, euren soldata ez da igo azken hamabi urteetan... Hori egiten da Udal Gobernuak onartzen duelako. Udalak antolatzen ditu kontratazio-lehiaketak, eta pleguetan aurreikusten da enpresek zein neurri hartuko dituzten langileekin. Udalak etengabeko komunikazioa dauka azpikontratatzeko dituen enpresa pribatu horiekin (nahi duenerako bai behintzat).

Langileen baldintza kaskar horiek erabiltzaileei eragiten digute, eta besteoi gertatzen zaigun bezala, baldintza horietan lan egiteak haien errendimenduan eragiten du. Getxo Kirolakeko langileak erabiltzaileengatik ere daude greban, zerbitzuaren kalitateagatik. Eutsi!

GETXO | Sport Studioko monitoreen greba

Lan-hitzarmena eta lan-baldintza duinak aldarrikatuz

Getxoko Udalak iragarri du ez duela luzatuko kirol-ikastaro batzuen kontratua, grebalarien eta enpresaren arteko akordioa lortu ezean. Hartara, hainbat ikastaro bertan behera geldituko dira apirilaren 28tik aurrera.

IKER RINCON MORENO ▶

Zentroko lan-hitzarmena lortzeko eta gutxieneko lan-baldintza duinak bermatzeko hiru eguneko greba egin dute egunotan Getxo Kirolak udal-erakundeak azpikontratutako Sport Studioko monitoreek. Egoera horren aurrean, esleipendutako enpresari kontratua luzatzeko proposamena atzera botatzea erabaki du Getxo Kirolakeko Zuzendaritza Batzordeak. Gobernu-taldeak (EAJ eta PSE) aurkeztu zuen proposamena, baina bozketan abstenitu egin zen, gainerako udal-talde denak bezala, GUK Getxo izan ezik, kontrako botoa eman baitzuen, langileen baldintza txarrak mantentzen dituen luzapenagaz ados ez daudelakoan. PSEk eta PPK udal-talde horren erabakia salatu dute, modu horretan apirilaren 28an 1. lotearen (tenis eta padel) eta 2. lotearen (igeriketa) kontratuak amaitutzat emango direlako. EH Bilduk, bere aldetik, Gobernu-taldearen «jokaldi zikina» deitoratu du: «Oposizioari egotzi gura dio orain egoera berri hau».

Hala, egunotan monitoreen eta enpresa esleipendunaren artean akordiorik egon ezean, kontratua apirilaren 28an amaitutzat emango du Udalak. Monitoreen ordezkari sindikalak jakinarazi duenez, lote bi horietan 30 lagun inguruk egiten du lan eta kalean geldituko dira kontratuaren amaiera horregaz, baita milaka lagun ere ikastaro horiek amaitzeko aukera barik. Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabaki hori langileen artean «presioa egiteko» bidea dela salatu du ordezkari sindikalak. Hala ere, jakinarazi du «indartsu» daudela eta borrokan segituko dutela, egoera konpontzeko ahaleginean.

Egoera horren aurrean, Alvaro Gonzalez Getxo Kirolakeko lehendakariak eta Kirol zinegotziak adierazi du bitartekaritza-lanak egiten saiatu eta negoziazio-mahaian «adostasunera iristeko borondatearekin» esertzeko eskatu arren, greba-egunek «kalte handia» eragin dietela erabiltzaileei eta erakundeak



Lan-uzteak eta protestak egin dituzte monitoreek hilaren 12an, 17an eta 18an. HODEI TORRES

Azpikontatazio-politikaren ondorioak

Grebaren harira, Getxoko EH Bilduk deitoratu du EAJk «sustatzen duen azpikontatazio politika» dela lan-uzte horren jatorria. Zerbitzu publikoak bitartekarien bidez kudeatzen direnean, langileen lan-baldintzak «kaskartu» egiten direla salatu du koalizioak. Horren aurrean, Udalak esan du «beti» bermatu duela pleguetan hitzarmen sektoriala betetzen dela.

ri berari. «Hori dela eta, kontratua baldintza horietan luzatzea ardura gutxiarekin jokatzeko litzateke», adierazi du Gonzalezek. Honenbestez, Getxo Kirolakeko kirol-eskaintza koordinatzen duen taldea harremanetan jarriko da erabiltzaileakaz, onartutako erabakiaren berri emateko eta kontratatutako enpresako langileek ematen dituzten ikastaroak amaitu egingo direla adierazteko. Modu berean, Getxo Kirolakek maiatzetik aurrera ez ditu egoera horrek hartzen dituen ikastaroen ordainagiriak igorriko. Azpikontatutako gainerako hiru loteetako ikastaroak (indoor, arte-martzialak eta yoga), aldiz, mantendu egingo dira, horien denen kontratuak irailean amaitzen direlako, monitoreek iragarri dutenez.

Sport Studioko monitoreen lan-uzteak hilaren 12an, 17an eta 18an izan dira. Langileek jakinarazi dutenez, lan egindako orduak «soilik» ordaintzen dizkiete, eskolak prestatzeko ematen duten denbora eta oporrak kontuan hartu gabe. Modu berean, deitoratu dute hamabi urte daroztatela soldataren inolako berrikuspenik izan gabe. ◀

GetxoGasol

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

944 301 500

GetxoGason Euskararekin bat! Getxo eta Berango artean

Ezagutu gaitzazu!!!

San Nikolas IKASTOLA

SAN NIKOLAS IKASTOLA
(Arene azpi, 15)
94 430 54 78

www.sanikolas.eus

GORLIZ | Aparkatzeko arazoari aurre egin guran

Uda osoan egongo da TAO



TAO sistema udalerriko kale denetan martxan egongo da, ekainetik irailera, zazpi egunetan. HODEI TORRES

Udalerriko kale denetan eta hondartzaren ondoko aparkaleku bietan TAO sistema ipintzea onartu du Gorkizko Udalak. Zerbitzua ekainaren 1etik irailaren 31ra arte martxan egongo da.

TESTUA: IKER RINCON MORENO KALE-GALDEKETA: ESTI GARCIA CHACON ►

Eguraldi ona eta bainu-denboraldia hel-tzen direnean, zaila izaten da hondartza inguruan aparkatzea. Arazo horri irtenbidea eman guran, uda garaian TAO sistema ipintzea onartu du Gorkizko Udalbatzak, EH Bilduren abstentzioagaz: «Arazoari aurre egin behar zaio, baina zalantza asko ditugu horren inguruan».

TAO sistema ekainaren 1etik irailaren 31ra bitartean egongo da indarrean, udalerriko 52 kaletan eta hondartzaren ondoko aparkaleku bietan. Dena dela, Gorkizen erroldatuta daudenak lasai egon daitezke, euren ez baitute ezertxo ere ordaindu behar izango, As-tondo eta Busterrri aparkalekuetan izan ezik, horiek biak itsaso eta lehorren arteko jabari publikoan kokatuta daudelako eta hala ipini duelako Itsasertz Mugarteak. Tarifei dagokienez, kanpotarrek gehienez 4,5 euro ordaindu behar izango dute gune urdina duten 32 kaleetako batean autoa lau orduz aparkatzegatik; gune berdean, aldiz, egun erdiko txar-

09:00

TAO zerbitzua goizeko 09:00etan hasi eta indarrean egongo da 21:00ak arte, astean zazpi egunez.

Doan

Autoa aparkatu eta lehenengo 30 minutuak doakoak izango dira.

4,5 €

Gune urdineko 4 orduak 4,5 euroan ordaindu beharko dira.

tela bost euroan eskuratu ahal izango da eta egun osoa zortzi euroan. TAO zerbitzua goizeko 09:00etatik 21:00etara egongo da indarrean, asteko zazpi egunetan. Horren harira, Gorkizko EH Bilduk zalantzak agertu ditu, ez duelako uste «benetan beharrezkoa» denik egun denetan eta ordutegi horretan sistema hori martxan edukitzea herri osoan. «Ekainean eta irailean, adibidez, ez da aparkatzeko arazorik egoten udalerrian, eta sistema honek arazoak sortuko dizkie Gorkizera lanera datozenei», adierazi du Gabi de la Maza koalizio abertzaleko zinegotziak. Udala zerbitzua bere gain hartuko duen enpresaren «bideragarritasuna» bilatzen dabilela ere salatu du zinegotziak: «Hasiera batean hondartzaren ondoko aparkalekuetan TAO ezartzeagatik Itsasertz Mugarteari ordaindu beharreko kanona enpresak bere gain hartzea onartu dute». De la Mazak aitortu du sistema berri horren aldekoak eta kontrakoak daudela udalerrian.

ALOKAIRUAN DAUDENENTZAKO BONUAK.

Gorkizen erroldatuta ez baina bertan alokairu-kontratua dutenek TAO-guneetan aparkatzeko bonuak eskatu ahal izango dituzte, «alokatzailaren OHZren ordainagiria eskatuta». Kasu horietan, lehenengo autoagatik 30 euro ordaindu beharko dituzte interesatuek, eta bigarrenagatik, aldiz, beste 50 euro. ◀

Herritarren iritzia



«Aparkatzeko TAO egotea ona dela uste dut. Baina, TAO egonda, zerbitzu publikoak hobetu beharko lirateke»

XABIER
BARRIKA, 48 URTE



«TAO ipintzea herrikoentzat ona dela uste dut. Baina 21:00ak arte funtzionatzea gehiegikeria iruditzen zait»

KOLDO
GORLIZ, 54 URTE



«Udalak udara moldatu behar du, eta TAO ipini beharrean zerbitzu publiko alternatiboak eman»

AMAIA
SOPELA, 53 URTE



«TAO diru-bilketa da. Gainera, hona etortzen den jendeak herriko negozioetan kontsumitzen du»

ASIER
LEZAMA, 45 URTE



«Aparkatzegatik kobratzea ez da konponbidea. TAOren ordezkia izango litzateke aparkaleku gehiago ipintzea»

AINARA
URDULIZ, 30 URTE

URDULIZ | Emakumeen memoria historikoa

Ezkutupeko errealitatea kontatu dute, ahanzturan gera ez dadin

Herri erdiaren memoria kolektiboa plazaratu du Urdulizko Udalak. Bertoko emakumeen XX. mendeko bizitzaren berri eman dute, 1928 eta 1981 bitartean jaioak 37 andrearen lekukotasunetan oinarrituta.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Esti Anitua Uribe Kostako Mankomunitateko Berdintasun teknikariak Urdulizko Udalagaz batera landutako proiektu batetik sortu zen *Emakumeen bistaratzea eta aitortza Urdulizko historian* liburua, Karmen Kareaga Kultura zinegotziak gogora ekarri duenez. Urtero prestatzen dituzte halako proiektuak, Emakundegaz elkarlanean. Kasu honetan, beste herri batzuetan egindako esperientzia moldatu zuten. Uribe Kostan, esaterako, antzeko ekimena egin zen Lemoizen, besteak beste. Anituak proposatu zuen gaia Urdulizen ere egitea polita izango zela iritzita, eta udaletxean bat etorri ziren proposamenagaz.

Jubilatuaren etxean hasi ziren elkartzen hainbat andragaz, adineko emakumeakaz erosoago jarduteko. Bakoitzak bere historia kontatu zuen. Amaia Herrero Oiarzabalek jaso zituen 37 emakumeren kontakizunak eta batu eta laburtu egin zituen 40 orritan. Kareaga «oso pozik» dago emaitzagaz: «Liburu atsegin eta irakurterraza da, gainera polit geratu da argazkiakaz». Lana oso harrera ona jaso du herrian. 1.500 ale atera zituen Udalak eta doan ibili da banatzen, kultur etxean besteak beste. Urduliztarrak eskatzen dabilta eta kanpotik ere hainbat eskaera jaso dituztela azaldu du zinegotziak. Hemendik gutxira udal-webgunean eskegiko dute liburua, gura duenak irakurri edo jaisteko. Gainera, emakumeen testigantzakaz egin zen bideoa ere paratuko dute «denek ikusteko moduan».

HAINBAT BELAUNALDI LOTU DITUEN ERREALITATEA. Vega Calvo Sierra izan zen ekimenean parte hartu zuen andreetako bat. Burgosen 1954an sortua, 40 urte darotza Urdulizen. Anituak eta Kareagak gonbidatuta hurreratu zen berbaldietara, bere harri-koxkorra ekartzera. Calvo «gustura» geratu da testigantzen emaitzagaz eta «emakumeek herriaren historiari eginda-



Antisorgailuen debekua, etxeko lanen zama, lan-bazterketa, hizkuntz errepresioa... jasan dituzte emakumeok. HODEI TORRES



Emakumeen bistaratzea eta aitortza Urdulizko historian Urdulizko Udalak joan den martxoan aurkeztu zuen liburua. Amaia Herrero bertako 37 andrek emandako lekukotasunak bildu zituen eta Amaia Ballesterosek azala sortu zuen.

ko ekarpena liburuan plazaratzeagaz». Inola emakumeen elkartearen sorreran eta bere ibilbidean parte hartu du Calvo, eta kontu batzuk «tintontzian geratu» zaizkiola uste arren pozik dago emaitzagaz. Izan ere, amamen, izekoen, amaren eta bere bizipenak islatuta ikusi ditu liburuan, berak edo beste andreak azalduta. Aurreko belaunaldiek «bizitza gogorragoa eta zailagoa» eduki zutela ondorioztatu du.

Rosa Mari Escondrillas Bilbao (Urduliz, 1952) «liluratu egn zuen» beste andreakaz batu eta elkarri historiak kontatzeko esperientziak. Ez dauka zalantzarik, errepikatuko luke, bigarren liburu bat atera gura izanez gero. Bere ustean, «denok ez ditugu kontu berdinak bizi». Hala, itsasaldea eta barnealdea edota baserria eta kalea desberdintzen ditu.

Liburuan hamaika kontakizun eta hamabi bazterkeria-adi-bide irakur daitezke, andreen ahotik. Berbarako, «egun bitan segidan mutil desberdinakaz ikusten bazintuzten, berehala hasten ziren esaten: "begira hori, halakoa da" (...)». Kontu handiz ibili beharra zegoen». ◀

Pintxo goxo-goxoak txakolin bategaz lagunduak Portu Zaharreko txoko paregabea!



Portu Zaharra kalea, 35 • ALGORTA 944 602 033 www.portuzaharra.com

SABIN EGIGUREN APRAIZ | Bizkai Euskal Dantza Eskola

«Beste mundura joatean utziko diot dantzak irakasteri»

Bizkai euskal dantza-eskolak 40 urte beteko ditu, eta Sabin Egiguren Apraiz taldearen sortzaileari omenaldia egitea erabaki dute ikasleek; ekitaldia apirilaren 21ean egingo dute, zapatuan, Plentziako Ontziola plazan.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Sabin Egiguren 1940an jaio zen, Bilbon. Hamar urte zeuzkala lehen dantza-eskolak eman zizkion Bittor Olaeta Torrezuri irakasleak. 1964an, Jose Fernandez Armiñanzasegaz eta Josu Martinezegaz batera, Gorantza dantza-taldea sortu zuen. Gerora Herrikoi izena hartu zuen, eta beranduago, Bizkai. 1976an euskal dantza tradizionalako eskola sortu zuen Egigurenek.

Hunkigarriagoa da zure ikasleek omenaldia egitea? Ibilaldiak eta Ipar Euskal Herriko Euskal Dantzaren Biltzarrak ere omenaldia egin zidaten; azken erakunde horrek birritan egin zidan. Oso gustagarria da egindako lana aintzat hartzea; kasu honetan hunkigarriagoa da, nire ikasleek egingo didatelako. Ostera, beste batzuentzat ez ei da oso interesgarria dantza-eskolan daukagun bideoteka oparoa edukitzea.

Erakunde publikoek aintzat hartzen dute egiten duzuen lana? Ez dugu lanik egiten omenaldiak jasotzeko, baina min egiten digu erakunde publikoen aldetik merezi dugun aitortza ez jasotzeak. Esaterako, orain gutxi, Bizkaiko Foru Aldundiak omenaldi txiki bat egin dio Basauriko Folklore Jaialdiari. Aipatu beharra dago ekitaldi hori nik neuk sortu nuela, 1972an: Euskal Herri osoko 500 dantzari inguruk parte hartzen zuten, zortzi eta hamar ordu arteko ikuskizunean. Orain inor ez da gogoratzen orduan egindako lanaz. Oso tristea da, baina ezin dugu gauza handirik egin. Lanean jarraitu besterik ez.

Euskal dantzaren alorrean ere errepresioa igartzen zen garai horretan? Euskal Herri osoan 12.000 kartel ipintzen genituen garai horretan; Franco bizirik zegoen oraindik. Hala ere, okerragoak ziren Basauriko falangistak: Emilio Escribano alkatea guztiz gogaituta zeukaten.

Zelako arazoak dauzka gaur egun Bizkai dantza-eskolak? Diru-laguntzen eskasia arazo larria da. Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen badiot, badakit emango didala, baina aurkeztutako aurrekontuaren %30 besterik ez. Geratzen den %70 zelan ordainduko dugu? Besteak beste, argia, megafonia eta telefona ordaintzeko gorabehera handiak edukitzen ditugu gure ikas-



Euskal dantza tradizionalaren erroak galtzen dabiltzala uste du Sabin Egigurenek. HODEI TORRES

Sabin Egigureni omenaldia

Apirilak 21, zapatua

Plentziako Ontziola plaza

10:00

Roberto Etxeberria trikitilaria kalejiran.

10:30

Sabin Egigureni ondoetorria. Berrizko San Lorenzo ezpata-dantzariak.

11:00

Berrizko Dantzari dantza.

11:30 / 12:30

Zuberoako kantoreak: Jean M. Bedaxagar, Mixel Etxekopar eta Niko Etxart.

12:00

Zuberoako Kontrapasa.

12:15

Sabin Egigurenen biloben (Aretx eta Aiertz) eta Maddi Egigurenen bertsoak.

13:00

Berrizko Soka-dantza.

13:30

Dantza-jauziak, Jota eta Arin-arina.

15:00

Bazkaria, El Casino jatetxean.

leen matrikularen diruaz. Nik askotan esaten dut egitasmo bakoitzaren %100 finantzatuko baligute ere horiek egiteko guztiz beharrezkoak direla argia, ordenagailuak, telefonoz bategaz eta besteagaz berba egitea... Elkartek ere dirua behar du.

Gutxi iruditzen zaizu dantza-eskolak 40 urtez egitea? Ez. Niri askotan galdetzen didate ia noiz erretiratuko naizen. Beti erantzuten diet lana aspaldi utzi nuela, 76 urte dauzkadala; baina euskal dantzak irakasteari beste mundura joaten naizenean utziko diot. Atsegin dut eta aberriak behar du. Gainera, garrantzitsua da guk lanean jarraitzea, askok baztertzen gaituzten arren; izan ere, euskal dantza tradizionala dantza garaikideagaz nahastu gura dute askok. Egiten dutenak ez dauka zerikusirik euskal dantza tradizionalagaz; hanka dantzatzeagaz uste dute nahikoa dela.

Zer etorkizun ikusten diozu euskal dantza tradizionalari?

Euskal dantza tradizionalak balio handia dauka, baina mesprezatzen ari gara. Gainera, ez dakit zergatik, ikuskizunak egitea bururatu zaie orain dantza-talde guztiei: horietatik askok agertokirik ez dute inoiz zapaldu, plazetan baino ez dute dantzatu. Bat-batean ematen du agertoki batean taulek gorde dezaketen guztiaz jakitun direla; guztiz baldarrak dira aurkeztzen dabiltzan ikuskizunak.

Euskal dantza tradizionalaren etorkizuna oso ilun ikusten dut. Egunen batean, irakaskuntza-lanean ibili diren horien guztien jakinduria galduko dugu, hil egingo dira eta. Bizilegea da. Irakasle gazteren bat badago, baina garai bateko euskal folklorea hurbiletik ezagutu ez dutenez, arazo bat sortzen zaienean, errotik konpondu ordez adabakiak ipintzen eta berrikuntzak egiten ibiltzen dira. Gurea dena galtzen ari gara; eta geratzen dena ez da ona. ◀

Hezkuntza

hiruka
Gehigarri berezia

123. zenbakia
2018ko apirilaren 19tik 25era arte

Etorkizunaren atarirako gida

Derrigorrezko hezkuntza amaituta, euren geroaren bidea eraikitzen hasteko sasoia heltzen zaie gaztetxoei. Hurrengo orrialdeetan, eskualdean Batxilergoa eta Lanbide Heziketa eskaintzen duten ikastetxeen informazio zabala aurkituko duzue.



Mendieta bidea, 1 GORLIZ (Plentziako portutik hurbil) • 946 770 994 • pottokietxe@gmail.com • www.pottokies

EREDU ELEBIDUNA (euskara / ingelesa)
0-3 URTE BITARTEKO UMEENTZAT
ORDUTEGIA: 7:30-18:30



Hezkuntza integrala helburu

Getxoko Aixerrota ikastetxeak irakaskuntza euskalduna eta pedagogia berritzailea eduki ditu ezaugarri nagusiak 1983an sortu zenetik. Proiektuak pertsonen hezkuntza integrala dauka helburu, eta zeregin horretan honako oinarritzko balio hauek dauzka: errespetua, askatasuna eta autonomia pertsonala. Euskara da bizikidetzako eta komunikazioko bitarteko nagusia. Gaur egun ikastetxeak hamaika proiektu dauzka martxan, berbarako Agenda 21, IKT, Normalkuntza, Sarehezkuntza eta Eleaniztasunerantz.

Aixerrota institutua ikastetxe bik bat egitetik sortua da: bata, Getxo 3 Batxilergo Institutua, 1979an abian ipini zena; bestea, Lanbide Heziketako institutu bat: Aixerrota LHI, 1983an sortua. Izen horri, Aixerrotari, eutsi zioten ikastetxe berriari izena ematean. Honenbestez, Aixerrota BHI institutu berria 1998an gauzatu zen, eredu euskalduneko ikastetxe moduan. Eskaintzen dituen ikasketak DBH osoa, hiru Batxilergo mota eta SAT taldea dira gaur egun.

Aixerrota BHI Andra Mari auzoan dago, itsasertzean. Ikastetxeak 2001. urtean burutu eta argitara eman zuen bere Hezkuntza Proiektua (IHP), eta gaur egun Curriculum Proiektua egiteko bidean dago. Hirueledun batxilergoa dauka, baita irakurketa plana ere.

Institutuak hamar ezaugarri edo printzipiotan jasotzen ditu bere komunitatearen nortasuna eta helburuak: errespetua, askatasuna, autonomia eta erantzukizuna, justizia, bakea eta bakerako heziketa, elkartasuna eta lankidetzak, pertsonen garapen integrala, kultura eta ikaskuntza, euskara, eta osasuna eta higieena. Ikasleen hezkuntza modu integralean egitea da helburu nagusienetakoa, gaitasun kog-



1998an gauzatu zen Aixerrota institutu berria, aurreko beste biren batuketaren ondorioz.

Ikasleen gaitasun mota denak garatzea da helburua.

nitiboak, afektiboak eta bestelakoak garatuz. Euskarari dagokionez, ikastetxeko harreman- eta tresna-hizkuntza izatea da ardatza.

Webgunearen bitartez edo ikastetxeko idazkaritzan eman daiteke izena Aixerrota BHI institutuan. Ordutegia 9:00etatik 13:30erakoa da goizetan, eta 15:00etatik 16:00etara bitartekoa arratsaldeetan, eguenetan eta barikuetan izan ezik.

EUSKARAK 365 EGUN ZURRUMURRURIK GABE

Euskara, immigrazioa eta kultura-aniztasuna

APIRILAK 26. 19:00

XABIER AIERDÍren sarrera hitzaldia
Solosalidia
(Berbodromo edo world cafe modukoa)
Kopautxo

MAIATZAK 10. 19:00

Solosalidia IDURRE ESKISABELEkin
Emakumea, immigrazioa eta euskara
Aurreko saiolik ateratako ondorioei emakumearen
ikuspegia gehituko zaie



Galdera hauei buruz berba egin nahi baduzu, animatu eta etorri!
Zure iritziak eta ekarpenak jasotzea da ekimenaren helburua

Azebarri Kultur Elkartea (Euskal Herria, 16, Algorta-Getxo) / Informazioa: antirumores@getxo.eus / 662 659 042

«Irakasleek asko laguntzen dute»

Batxilergoko hiru ikaslek zabaldu dizkigute Sopelako Ander Deuna ikastolako atea: Eneko Elorduyk, Zihara Nuñezek eta Maider Sotok. Ikastetxean azken txanpa egiten dabil Elorduy, bigarren mailan dago-eta. Matematika ikasi gura du datorren ikasturtean, unibertsitatean. Nuñezi eta Sotori beste kurtso bat geratzen zaie oraindino; biek ala biek medikuntza egiteko asmoa daukate. Elorduy seigarren ikasturtea egiten dabil Ander Deunan, DBHn sartu zen-eta. Askoz lehenagotik dabilta bertan Nuñez eta Soto: 2 eta 3 urte gaz hasi ziren, hurrenez hurren.

Batxilergoa garai berezia dela diote, bizipenez betea, eta neurri batean ikaratu egiten duena. «Azterketa bakoitza, lan bakoitza... Dena da oso garrantzitsua, azken batean jokoan daukagu etorkizuna eta gustuko ikasketak egin ahal izatea gerora». Bide horretan aurrera egiteko Ander Deunako irakasleengandik jasotzen duten laguntza handia nabarmendu du Nuñezek: «Hemengo irakasleak oso onak dira, oso harreman estua daukate ikasleokaz, eta beti egoten dira guri laguntzeko prest».

Buruz buruko tutoretza-saioei garrantzi handia ematen dietela azpimarratzen dute, hain zuzen ere, Ander Deuna ikastolako pedagogia-arduradunek. Ikasleak oso gazte direla hasten dira etorkizunean jorratuko duten bidea aukeratzeko, eta erabaki zuzena hartzeko behar-beharrezkoa da orientazio egokia jasotzea. Zeregin horretan arreta berezia ipintzen du Ander Deunak.

Bestalde, nabarmentzekoa da hizkuntzei ematen dieten tratamendua. Euskara ardatz dela beti ere, Ander Deunak urte asko daroatza Ikastolen Elkartek 90eko hamarkadaren hasieran garatutako Elea-



Eneko Elorduy, Zihara Nuñez eta Maider Soto ikasleek Ander Deunak zer eskaintzen dien azaldu digute. HODEI TORRES

Ander Deunak garrantzi handia ematen diote orientazioari.

nitz Proiektua aplikatzen. Hala, gaztelania, ingelesa eta frantsesa lantzen dituzte ikasleek.

Amaitzeko, ikastolaren ingurua goraipatu dute gure hiru berbakideek. Espazio zabala dauka Ander Deunak, naturaz inguratua, eta hori eskertzekoa dela diote. Zelanbait, lagundu egiten du Batxilergoak dakartzan «estutasunak» gainditzeko, aitortu dutenez.

Berria euskaraz erakusten diren Batxilergo zerekin Lanbide Heziketako ikasketak ikik.

Euskaraz curriculum aberasteko gizona.

Unibertsitateko euskarazko ikasketak modu errazian kontsultagai.

Zabaltu ateak (an merkatarit).

Euskaraz ikasi eta EGA irabazi.

Nahidudalako.eus

Zure iritzia ezinbestekoa da guretzat. Sartu www.nahidudalako.eus web gunean, galdetegi bete eta sari zoragarriak irabazi.

1.

IPAD Wi-Fi, 32 GB

2.

GoPro hero 5 session ekintza kamera

3.

Polar M400

Zure gustuko ikasketak euskaraz eta etxetik gertu

Etorkizuneko ateak zabal-zabalik. Aukera zure eskuetan!

Nahi dudalako

EUS KARAZ

Esperientziaren bermea

Fadura LHII ikastetxeak 35 urte baino gehiago daroatza kalitatezko zerbitzua eskaintzen, eta eskualdean enpresen eta inguruaren erreferentzia izatea lortu du. Gazteak gizatasunez eta arlo teknikoan prestatzea da helburua, jendartean integra daitezen bai lan-mundura bai beste ikasketetara sartzegaz batera. 1980tik daroa ikastetxeak eskaintza zabala ematen lanbide-heziketan: goi- eta erdi-mailako heziketa-zikloak, eskaintza partziala, heziketa duala, enplegurako formakuntza, zereginen gela... Algortako Fadura inguruan dago, garraio-zerbitzu publikoetatik hur. Irakas-baliabide eta instalazioei dagokienez, ikastetxeak kalitatezko ekipamendua eskaintzen du, eta ikasleen eta enpresen asebetetzea urtez urte handitzen doa, horien beharrazinei erantzunez.

Balioetan hezteko da Hezkuntza Proiektuaren oinarria, etengabeko harrera lagunkoiaren, beti hizketa-giroaren, ulermenaren eta berdintasunaren alde agertzen da Fadura LHII. Ugaritasuna ikasteko aukeratzat hartuz, eta dibertsitateari eskainitako arreta da pertsonetikiko eta komunitatearekiko duen konpromisoa.

Modu berean, ikasleen prestakuntza-mailagatik, formakuntza-eskaintza zabalagatik, laneko segurtasunagatik eta inguruarekiko konpromisoagatik, kalitate eta etengabeko hobekuntzarako kudeaketagatik eta eskualdean enpresa eta inguruaren erreferentzia izateagatik gura du jendeak ikastetxea ezagutzea.



Hezkuntza- eskaintza

Goi-mailako Heziketa-zikloak

- Mantentze-lan elektronikoa
- Fabrikazio mekanikarako produkzioaren programazioa
- Haur-hezkuntza.
- Gorputz- eta kirol- ekintzen sustapena
- Osasun-dokumentazioa eta administrazioa
- Egokitze fisikoa

Erdi-mailako Heziketa-zikloak

- Telekomunikazioa-instalazioak
- Mekanizazioa
- Karrozeria
- Ibilgailu automobilen elektromekanika
- Erizaintzako laguntzailea
- Osasun-larrialdiak
- Eskaintza partziala: Osasun-larrialdietan

- Lanean zein langabezian daudenentzat «Lanbide» ikastaroak

- ULHI: Urrutiko eskaintza osasun-larrialdetan

- Lan-konpetentziak egiaztatze prozedurak

- Zereginen gela

Izena emateko:

- Online: www.fadura.eus
- Idazkaritzan bertan ere izena eman daiteke, goizeko 08:30etik 13:30era arteko ordutegian.

Fadura Ikastetxea

Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua

Bizkerre zk.g. 48991 - Getxo

JARDUNALDI IREKIAK:

- ZIKLO INDUSTRIALAK

(Elektronika, Fabrikazio mekanikoa, Automozioa)

MAIATZAK 15, 18:00etan

- ZIKLO EZ INDUSTRIALAK

(Osasungintza, Kirolak, Haur-hezkuntza)

MAIATZAK 16, 18:00etan

Zure etorkizuna hurbil

Berrikuntza, Aniztasuna eta Kalitatea

Berdintasuna eta Ingurugiro-iraunkortasun balioetan hezitzaileak

Praktikak atzerrian, Irakasteko metodologia berriak, IKT heldutasuna

Tel: 944 069 000 - www.fadura.eus - instituto@fadura.eus



Bigarren Hezkuntzako Institutua
Instituto de Educación Secundaria

IES artaza romo BHI

KALITATEA, SORMENA, ANIZTASUNA

BATXILERGO MODALITATEAK:

- Zientzia eta Teknologia batxilergoa
- Giza eta Gizarte-zientzien batxilergoa
- Arte batxilergoa (eskualdeko ikastetxe bakarra)

INSTALAZIOAK

Liburutegi 2	LABORATEGIAK	ARTE-GELAK
Teknologia gela 2	Fisika	Irudia
3 informatika gela	Biologia	Arte-marrazketa
Plastika gela 2	Geologia	Bolumena
KIROL-INSTALAZIOAK	Kimika	Pintura
	Argazkigintza	Teknika grafikoak

Amaia etorbidea, 28 · 48940 · LEIOA

944 801 005 · 01511aa@hezkuntza.net · www.artazaromo.com

BATXILERGOA BACHILLERATO

arte arte
zientzia eta teknologia ciencias y tecnología
giza eta gizarte zientziak humanidades y CCSS



puertas abiertas - ate irekiak
3 de mayo 18:30 maiatzak 3

IES artaza - romo BHI

www.artazaromo.com

GORLIZKO HAURRESKOLA 2018/2019

IZENA EMATEKO EPEA ZABALIKI!

Apirilaren 30etik - Maiatzaren 11ra

Edozein galdere edo zalantza gerturatu edo deitu telefonoz:

946 773 765 (13:10tik 14:30etara)



haurreskolak.eus

Urtiene estrada, 5 · GORLIZ



INGELES ALEMANIERA FRANTSESA

Taldeak, enpresak eta partikularrak
Eskolaz kanpoko ekintzak
Maila guztiak
Ingeles hiru urtetik aurrera
Talde txikiak
Inglateran egonaldiak

SOPELAN, Dr. Landa 6.
LARRABASTERRAN, Iberre 9.
946 763 012 - info@hamiltonidiomas.com

SOPELAKO HAURRESKOLA ATE IREKIAK

MATRIKULAZIO EPEA

Apirilak 30etik Maiatzak 11ra

ATE IREKIAK / PUERTAS ABIERTAS

Maiatzaren 2, 8 eta 10ean 10:00etatik-11:00etara
Maiatzaren 2an 16:00etatik 18:00etara

ANTZAR POTZU 12, SOPELA (946.762.559)



ACADEMIA
VILLAMONTE
AKADEMIA

• TALDE TXIKIAK
• BANAKAKO ARRETA,
JARRAIPENA eta EGOKITZAPENA
• AZTERKETEN PRESTAKETA

ESKOLA-ERREFORTZU ZENTROA

CENTRO DE REFUERZO ESCOLAR

TDAH eta dislexia tratatze
lanean esperientzia dugu.
Experiencia trabajando con TDAH y dislexia.

LEHEN HEZKUNTZA / PRIMARIA
DBH / ESO

BATXILERGOA / BACHILLERATO
SELEKTIBITATEA / SELECTIVIDAD

BESTELAKO IKASTARO ETA MAILAK / OTROS CURSOS Y NIVELES

634 721 181 academiavillamonte@gmail.com Villamonte kalea · ALGORTA

Gazteak online munduan murg



Ume eta nerabeen artean Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) eta Interneten erabilerak hainbat arrisku sor edo areagotu ditzakeela ondorioztatu du EHuko irakasleek egindako diagnostiko batek.

IKER RINCON MORENO ►

Gaur egun, espainiar Estatuan umeek 8 urteaz eduki ohi dute lehenengo sakelako telefonoa. Orain dela sei urte, aldiz, neska-mutilek 10 urte zeuzkatenean edukitzen zuten Internetagaz lehenengo kontaktua, eta urtebete geroago lehenengo telefono mugikorra, *Entre selfies y whatsapps* Interneten eta ume eta nerabeen gaineko diagnostikoaren arabera.

Teknologiaren erabilerak gora egin arren, arriskuak ez dira neurri berean areagotu.

Jakina da gure gizartean teknologiak gero eta eragin handiagoa daukala, baita gure arteko erlazioetan ere, eta adingabeak horren jakitun dira. Hala, gero eta ume gehiagok erabiltzen dituzte baliabide digitalak musika deskargatzeko, bideoak ikusteko, etxeko lanak egiteko, sare sozialetan parte hartzeko eta beste pertsona batzuekatzeko, besteak beste. «Errealitate horrek aukera asko eskaintzen dizkie, baina sarea behar bezala ez erabiltzeak arazoak eta egoera arriskuak ere ekar diezazkieke», iragarri dute diagnostikoa egin duten adituek. Sor daitezkeen arazoei aurre egiteko, topikoez eta alarmismoez harago, arriskuen prebentzioan lan egitea eta umeek internauta zorrotz eta kontzientearen rola hartzea gomendatu dute, «autonomiaz eta segurtasunez aritu daitezen». Diagnostikoan parte hartu duen Carmelo Garitaonandia EHuko Kazetaritzako katedradunaren arabera, oso garrantzitsua da umeen eta nerabeen online bizitza aztertzeke ikuspegi glo-

ilduta: zenbatekoa da arriskua?

bala edukitzea. Latinoamerikan egindako ikerketaren arabera, Garitaonandiak egiaztatu egin ahal izan ditu estatus sozioekonomiko altuko eta baxuko etheen arteko konexioen aldeak, baita hiri- eta landa-eremuen artekoak ere, garapen ekonomiko azkarra eta desberdinkeria sakonen sorrera bizi izan duten herrialdeetan, alegia: «Brasilen, adibidez, diru-sarrerara handienak dituzten biztanleak ia etengabe daude Internetera konektatuta, eta diru-sarrerara txikiak dituztenak, berriz, ez dira horren laurdenera ere iristen».

TEKNOLOGIA BERRIEN ERABILERA ADINGABEEN ARTEAN. Umeak gero eta lehenago hasten badira ere Internet, telefonoak, tabletak eta ordenagailuak erabiltzen, adituek ondorioztatu dute erabilera horiek eragindako arriskuak ez direla neurri berean areagotu. Dena dela, jazarpenari lotutako hainbat datu mahai-gaineratu dituzte argitaratutako azken diagnostikoan. Diotenez, 9tik 16 urtera arteko erabiltzaileen arteko *bullying* intzidentzia bikoiztu egin da hamarkada bat baino gutxiagoan: «2010ean % 15ek aitortu zuten *bullyinga* jasan izan zutela, edozein aldaeratan, *ziberbullyinga* barne». Gaur egun, aldiz, datu hori % 31koa dela azaleratu du azken ikerketa horrek. Horrez gainera, sexu-edukiak dauzkaten mezuak jaso dituzten adingabeen ehunekoa izugarri handitu da azkenengo urteotan: hiru adingabetik ia batek onartu du mota horretako edukiak jaso izana.

SEXU-MEZUAK ETA ZIBERBULLYINGA. Aipatutako lanean ume eta nerabeentzako arriskuen artean sexu-mezuak eta *ziberbullyinga* agertzen dira. Azkenengo kasu horretan, irakasleen eta ikasleen esku-hartzea funtsezkoa dela uste dute adituek, alde batetik Internet bidezko jazarpenak detektatzeko eta, bestetik, horri aurre egiteko. Horren harira, programa bi gomentatu dituzte: Ciberprogram 2.0 eta Asegurate izenekoak. Diotenez, biak dira estrategia erabilgarriak arazoak prebenitzeko, *bullying* tradizionalerako kasuetan, aurrez aurrekoa, erabiltzen diren ohiko protokoloakaz batera, online baino maizago gertatzen baita oraindino ere.

Sexu-edukiak dauzkaten mezuei dagokienez, espainiar Estatuko 11 eta 16 urte arteko neska-mutil gehienek (% 94,5) uste dute *sextinga* edo telefono mugikorren bidez eduki erotiko edo pornografikoak bidaltzea praktika arriskutsu dela: «% 44,7k aitortu dute joko erotiko edo sexualaren parte dela, eta lautik batek (emakumeen % 19,5 eta gizonen % 31,4) uste du bikote harremanak hobetzen dituela», diote adituek.

INTERNETEKIKO MENDEKOTASUNA. Osasunaren Mundu Erakundeak ez du Internetekiko adikzioa maila klinikoan aitortzen; hala ere, mendekotasunen ohiko sintomak dauzkaten gazteak egon badaudela adierazi dute adituek. Dena dela, ez dira nahastu behar sarean maizko edo gehiegizko erabilera eta erabilera problematikoa; «izan ere, azken hori Internetek pertsona bakoitzaren egunerokoan eragin ditzakeen interferentzia-mailaren arabera da».

Interneten eta gailu mugikorren erabilera-maiztasuna eta, ondorioz, arriskuak ere areagotu diren arren, kalteren bat jasan dutenen proportzioa txikitu egin da. Hala ere, adituen arabera beharrezkoa da adingabeei baliabideak ematea ingurune digitalak eskaintzen dituen aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzeko eta arrisku horiek murrizteko. Gainera, horretarako nahia eta kontzientziazioa areagotu egin da azkenaldian gurasoen artean, baita adingabeen artean ere.

Berez, gurasoek aukera daukate beren seme-alabek gailu elektronikoak eta Internet zelan erabiltzen duten gainbegirtzeko eta erabiltzen laguntzeko. Hala ere, pribatutasun-nahiak zaildu egiten du bitartekaritza-lan hori, bereziki umeen pribatutasuna errespetatzen denean eta haien konfiantza baloratzten denean», azaldu dute adituek.

Adingabeentzako arriskuak

Bullying

9 eta 16 urte arteko erabiltzaileen artean mota horretako jazarpena bikoiztu egin da azkenengo hamarkadan: 2010ean % 15ek aitortu zuten jasan zuela; orain % 31k.

Sexting

11 eta 16 urte arteko neska-mutilen % 44,7k aitortu du joko erotiko edo sexual horren parte izan dela.

Adikzioa

Osasunaren Mundu Erakundeak ez du Internetekiko adikzioa maila klinikoan aitortzen, baina badaude mendekotasunen ohiko sintomak dauzkaten gazteak.

Interneten eta gailu mugikorren erabilera-maiztasuna eta arriskuak areagotu diren arren, kalteren bat jasan dutenen proportzioa txikitu da.

IKTren erabilera arduratsua egiteko gomendioak



- Teknologia modu arduratsu, adeitsu, kritiko eta sortzailean erabiltzen erakutsi adingabeei.
- Seme-alabakaz edo ikasleakaz modu irekian berba egin; teknologiaren erabilera segurua eta positiboa erakutsi.
- Teknologiaren aurrean, erreferentziazko jarreragaz jardun.
- Informatikari lotutako edukietan hezi, pentsamendu kritikoa garatzen eta Interneten hobeto nabigatzen laguntzeko.
- Eduki negatibo edo ilegalei zelan aurre egin erakutsi.
- IKTren erabileran eta irisgarritasunean ikertu, zuzentasunean oinarrituta.

tutasuna errespetatzen denean eta haien konfiantza baloratzten denean», azaldu dute adituek.

ESKOLAREN ROL AKTIBOA. Diagnostikoa egin duten adituen ustean, eskolak badauka zeresana hezkuntza digitalean. Azpiegituretan eta ekipoetan inbertituz gero, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknlogiek (IKT) ematen dituzten aukerak aprobetxa daitezke, «baina hori ez da nahikoa izango irakasleek ez badituzte ohiko metodo pedagogikoak berrikusten eta rol aktiboagoa hartzen». Izan ere, adingabeen hezkuntzarako erantzukizun hori gurasoena eta gizarte osoarena ere bada.

ENTRE SELFIES Y WHATSAPPS LANA. Adingabeei Internetegaz batera bizitzeak dakartzkien aukeren eta arriskuen gaineko gaur egungo ebidentzia fidagarrietan oinarritutako egoeradiagnostikoa da. Hamazazpi kapitulu dauzka, eta horietako bakoitzak gai bat aztertzen du, hala nola umeek zelan jasaten dituzten *ziberbullyinga* eta *sextinga*, eskolan zelan kudeatu Internet, eta familiaren eginkizuna. Estefanía Jiménez, Maialen Garmendia eta Miguel Ángel Casado EHuko irakasle eta EU Kids Online taldeko kideek koordinatu dute lana.

Aurrerapena, hezkuntzaren motor

1979an jaio zen Derioko Politeknika Ikastegia Txorierri, bai Batxilergoan bai Lanbide Heziketan kalitatezko irakaskuntza-eskaintza egiteko. Eskaintza hori hobetzeko ahaleginean, teknologia berritzeko pausoak ematen dituzte etengabe.

Denok dakigunez azken urte hauetan industriaren laugarren iraultzaren parte izaten ari gara. Politeknika Ikastegia Txorierri ez da bizi aurrerapen horietatik aparte eta, beti bezala, aurrerapenaren aldeko apustua egin eta teknologia berritzaileak sartzen dabil bere ikasgeletan.

Teknologia berritzaileen adibide nagusia ikusmen artifiziala da. Irudien analisia egin ahal izateko beharrezkoak diren prozesu-multzoek osatzen dute ikusmen artifiziala. Prozesu horiek irudiak biltzea, informazioa gordetzea, prozesatzea eta emaitzak interpreta-tzea dira, hain zuzen ere.

Ikusmen artifizialari esker, langileek egin ohi dituzten ikuskapen-lan errepikakorrak automatizatzen dira, produktuen kalitate-kontrolak egiten dira, objektuak ikuska daitezke kontaktu fisikoa saihestuz, eta prozesu automatikoen zikloen denbora murriztu egiten da.

Gaur egun, honako hauek dira ikusmen artifizialaren aplikazio hedatuena: objektuen identifikazioa eta ikuskapena; objektuek espazioan daukaten kokapena ezartzea; objektu zehatz baten koordinatuak finkatzea; hiru dimentsioko neurketak egitea; eta hainbat kodigoren irakurketa egitea.

Ikusmen artifizialeko sistema batek lau osagai nagusi dauzka. Kamera daukagu batetik. Haren eginbehar nagusia sentsoreak (optikari esker) proiektatutako irudia jasotzea da, sistema elektronikoki bati transmititu ahal izateko. Bigarren elementua argiztapena da, seguruena sistemaren zati garrantzitsua. Kamerak jaso egiten du objektuetan islatzen den argia, eta argiztapenak finkatzen du zelan jasotzen den irudia. Hirugarrenik, optika erabiltzen da kameraren sentsorerara argia modu kontrolatuan transmititzeko.

Orain dela urte batzuk, ordenagailuen abiadura faltaren ondorioz, ezinezkoa zen benetako denboran prozesuak egitea. Hortik dator laugarren osagaiaren garrantzia; softwarea. PCI busari eta prozesadoreen eboluzioari esker irudiak benetako denboran prozesatzea lortu da, eta prozesu gehienak denbora laburrean egin daitezke.

www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako ikastetxea



**POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI**
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lanbide Heziketa eta Bigarren Irakaskuntzarako Ikastetxea

Untzaga Ibaia Kalea, 1
48160 - DERIO

Tel.: 94 403 40 60
Fax: 94 403 40 61

info@txorierri.net
www.txorierri.net



Ikastegia ezagutzeko egunak

Apirilak 24, maiatzak 3 eta ekainak 7 (18:30etan)

BATXILERGOA

- Zientziak eta Teknologia Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazio Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produksioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari

Zatoz gure instalazioak, tailerrak eta laborategiak ezagutzera

- Automatizazioa eta Robotika industrialeko Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

Zeri kantatzen diogu euskaldunok?



Antzerkia

Apirilak 21, zapatua

Azuzainaren ipuina

20:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela

Emanaldia 6 urtetik gorakoentzat da. Testu barik. Sarrera: 4 euro (umeak) / 6 euro (helduak).

Berbaldiak

Apirilak 20, barikua

Urko Labeagak 20 urte preso

18:30 | Mikelats Herriko Taberna | Sopela

Iñako Goioaga eta Iñaki Zugadi abokatuek preso sopoloztarraren egoera penala zein den argituko dute. Horrez gainera, Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren eztabaida-prozesuaren nondik norakoak azalduko dituzte. Sarrera, doan.

Apirilak 24, martitzena

Zelan egin dute beste herri batzuetan euskararen erabilera areagotzeko?

19:00 | Algortako kultur etxea | Getxo

Derioko *Ahora* ekimena, Aguraingo 75 ordu *euskaraz* eta Lasarte-Oriako *Euskararen maratona* azterbide, Euskaraldiaren barruan. Moderatzailea: Arrate Illaro. Sarrera, doan.

Apirilak 25, eguaztena

Berbodromoa

10:30 / 17:00 / 19:00 | Sakoneta | Leioa

Informazioa: berbaldun.leioa@gmail.com

PLENTZIA-SOPELA | Ikastaroa

Apirilaren 25etik maiatzaren 23ra arteko eguaztenetan (maiatzaren 9an izan ezik), zuzeneko musikaz girotutako euskal abestien gaineko irakurketa egingo dute Gotzon Barandiaranek eta Rafa Ruedak, 19:00etatik 21:00etara, Plentziako Gaztelekuan; parte-hartzea, doan. Hala, aldeztu aurretik izena eman beharko dute interesatuek, Goñi Portalen zein Gorlizko kultur etxean. Sopelan, apirilaren 27tik ekainaren 22ra arte (bariku bitan behin) egingo dute ikastaroa, ordutegi berean, Kurtzion. Aurretik izena ematea beharrezkoa da.

Dantza

Apirilak 21, zapatua

Munduko dantzen jaialdia

19:00 | Antzokia | Berango

Dantza-eskolen erakustaldia. Sarrera, doan.

Dantza-erakustaldia

12:00 | Metro-geltokiko zabalgunea | Erandio

Dantzaizu elkarreagaz. Doan.

Erakusketak

Apirilaren 20ra arte

Gorputzak

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia

Sorginen Alabak talde feministak antolatuta. Argazkiez gainera, irakurketa txokoa dago. Sarrera, doan.

Apirilak 21, zapatua

Plentzia: una historia de 402.018 años erakusketaren inaugurazioa

12:00 | Plasia de Butrón Museoa | Plentzia

Museoak 20 urte bete ditu. Sarrera, doan.

Jaiak

Apirilak 21, zapatua

Danontzat gaztetxeak 5 urte

12:30 | Eliza ondoko aparkalekua | Gorliz

Antxo eta Pantxa pailazoak (12:30), triki-poteoa (13:00), herri-bazkaria (15:00) eta Ttek elektro-txaranga (19:00) egongo dira.

Mobilizazioak

Apirilak 20, barikua

Presoen isolamenduaren kontra

20:00 | Xake plaza | Areeta

Euskal presoen, iheslarien eta deportatuen eskubideen aldeko Sare Herritarrak antolatuta.

Musika

Apirilak 19, eguena

Minima pop-taldea

20:00 | Silver's taberna (Algorta) | Getxo

Getxon Zuzenean kontzertu-zirkuituaren barruan. Sarrera, doan.

Apirilak 20, barikua

Glaukoma

22:00 | Eliza ondoko aparkalekua | Gorliz

Plentziako Danontzat gaztetxearen bosgarren urteurrenaren harira. Karpa 21:00etan zabalduko dute; Glaukoma taldearen kontzertuaren ostean, Jo Ta Txo eta Brim Djek jardungo dute. Sarrera: 8 euro (aurretik) / 10 euro (bertan).

Apirilak 21, zapatua

Zipote Records eta Urrats

23:00 | Danontzat gaztetxea | Plentzia

Aurretik, 21:00etan, *Danontzat 5 urtez* ekitaldia egingo dute. Sarrera, doan.

Zinema

Apirilak 24, martitzena

Frances Ha

20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa

Jatorrizko bertsoian, gaztelaniazko azpigituluakaz. Sarrera: 2,50 euro.

Dantzaxori aratusteen ekitaldia bideoan zabalduko du Trabuduk



ASTRABUDUA | Bideo-emanaldia

Apirilaren 20an izango da saioa,

19:30ean, Josu Murueta kultur

etxean; sarrera, doan.

Liburuaren Egunaren harira

Erandio

Apirilak 23, astelehena

10:00-20:00 Liburuak euro baten truke, Tindouf-eko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamenduetan bizi diren sahararrei laguntzeko, Erandioko metro-geltokiko zabalgunean eta Astrabuduko Josu Murueta plazan. Ekimena Sahararen aldeko Nishma elkarte erandioztarrak antolatu du.

10:00-14:00 Erandioko Udal Liburutegiak antolatutako irakurraldi publikoa, Erandioko udaletxeko bilkura-aretoan. Irati Jimenezek *Nora ez dakizun hori* liburua irakurriko dute, euskaraz. Elkarrekin, ordezkari politikoek, langileek eta, oro har, herritarrek parte hartuko dute. **16:00-20:00** Arrastian liburu berbera irakurriko dute; baina, oraingo honetan, gaztelaniaz. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean izango da saioa.

Getxo

Apirilak 19, eguena

19:00 No liburuaren aurkezpena, horren egilea den Said El Kadaoui psikologo, idazle eta kazetari marokorragaz. Saioa Algortako kultur etxean egingo da; sarrera, doan. Liburuaren aurkezpena Getxoko Udalaren Zurrumurruen Kontrako Estrategiaren barruan dago.

Apirilaren 20tik 23ra

Liburu Azoka, Algortako Telletxe plazan. Udalerriko zortzi liburu-dendak eta udal-liburutegiak parte hartuko dute. Liburuak erosteko aukera edukitzeaz gainera, helduentzako zein umeentzako jarduerak egongo dira; bestelakorik zehazten ez bada, elebitan eta doan izango dira. Informazioa: www.getxo.eus

Plentzia

Apirilak 21, zapatua

11:30 *Lehen trena* Plentziara umeentzako liburuaren aurkezpena, Antonio de Benito idazleagaz, Goñi Portal kultur etxean. Doan. Hilaren 23tik aurrera, doan banatuko dute Plentziako eskolan eta herriko saltokietan.

JUAN MARI

Harategia

Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

OSABIDE Hortz-Klinika

Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696

Uribe Kosta ez zen hegazkin

Gernikan, Durangon, Bilbon eta dozenaka herritan gertatu legez, indar matxinatuen zerbitzupeko hegazkin alemaniarrek eta italiarrek botatako bonbek gogor astindu zuten eskualdea, 1937ko udaberrian. Herritarrak beldurraraztea zen haien helburu nagusia.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►


Apirilaren 26an 81 urte izango dira Luftwaffe abiazio nazioaren Kondor Legioak eta faxista italiarren Aviazione Legionariak Gernika suntsitu zutenetik: 1936ko gerran, indar matxinatuen zerbitzura ziharduten bonbaketa-rien eta ehiza-hegazkinen erasoak zibilak sarraskitu zituen, eta hiria suntsitu zuen: eraikinen %1 baino ez zen zutik gelditu. Gernikaren hondamena Errepublikaren alde borrokan zebiltzan milizianoek eta gudariei leporatzeaz gainera, hildakoen gainean gezur galantak bota zituzten agintari matxinoek.

Azken ikerketen arabera, bi milatik gora izan ziren hildakoak, kopuru askoz txikiagoak ere eman izan diren arren. Xabier Irujo historialariak eta irakasleak *Gernika* (Editorial Crítica, 2017) liburuan aipatzen duenez, «eskuan ditugun dokumentuen arabera, gutxienez, bi mila pertsona hil ziren; bada, Wikipedian edo beste edonon, 126 eta 300 hildakoren artean izan zirela dio». Ia hilabete lehenago, martxoaren 31n, Durangok jasan duen bonbardaketarik handiena egin zuten Aviazione Legionariako hegazkinak. Apirilaren 4ra arteko bonbardaketetan erregistratutako datuek diotenez, erasoek 336 hildako eragin zituzten. Denera, hegazkinak 281 bomba baino gehiago jaurti zituzten; hau da, 14.840 kilo inguru lehergailu. Durangok ez zuen aireko erasoaren kontrako babesik.

Aipatutako herri bietan izandako bonbardaketei daukaten garrantzia kendu barik, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak 500 hegazkin-eraso baino gehiago jasan zituzten, Eusko Jaurlaritzak Joseba Agirreazkuenaga eta Mikel Urquijo EHuko irakasleei eskatutako ikerketaren arabera. Azterlanaren gainera emaitzak 2015eko azaroan plazaratu zituzten *Memoriaren ibilbideak: gerra zibilaren memoriarekin lotutako espazioen zerrenda* liburuan. Ikerketa egiteko, besteak beste, pilotuen hegaldi-agiriak eta garai horretako egunkariak ikuskatu zituzten irakasle biek. Eusko Jaurlaritzak berak 2017ko abenduan plazaratu zuen 1936ko gerran Euskal Autonomia Erkidegoan izandako bonbardaketen zerrenda, «biktimei aintzatespen publikoa egiteko». Gasteizko gobernuko arduradunek aipatu dutenez, «oroimen historikoa berreskuratzea du helburu zerrenda horrek, askatasunaren eta balio demokratikoen



Kondor Legioak eta Aviazione Legionariak parte hartu zuten Uribe Kostako bonbardaketetan.



alde borrokatu zirenak inguratzen dituen isiltasuna bukatu dadin». Zerrenda horri begiratuta, ia 800era ailega litezke hegazkin faxistek Euskal Herriko zernetan eta lurretan egindako bonbardaketa-misioak. Hala ere, egindako ikerketen emaitzen artean aldea egotea ez da horren arraroa: ez da erraza datuak aurkitzea. Berbarako, lehen esan legez, Gernikako bonbardaketaren gainean, gezur galantak bota zituzten agintari matxinoek, baita horien aldeko komunikabideek ere.

HERRITARRAK BONBARDAKETEN JOMUGA. Denak ez badira, historialari gehienak bat datoz Alemaniako naziak eta Italiako faxistek 1936ko gerra «laborategi legez» erabili zutela, batez ere atzeguardiako hiriek eta herriek jasan zituzten bonbardaketa bortitzei erreparatzen badiogu. Lehenbiziko aldiz eta modu sistematikoan, gerra-estrategia berriak erabili zituzten matxinatuen zerbitzura ziharduten armadek: ohiko bihurtu zen atzeguardiako hiri eta herrietako azpiegituri erasotzea: portuak, tren-geltokiak, lantegiak, zentral elektrikoak, komunikazio-lotuneak, gobernuen egoitzak... Horrez gainera, zuzen-zuzenean herritarren kontra jo zuten, haien moralak eta erresistentzia suntsitzeko asmoz. Ez ziren bonbardaketa isolatuak edo noizean behinekoak; «Erabateko gerra» izeneko estrategiagaz bat zetozen. Bigarren Mundu Gerran ohikoago bihurtu ziren horrelako erasoak; are gehiago, 1936ko gerraren osteko gatazkan erabili zituzten hegazkinak eta bonbak Gernikan, Durangon, Bilbon eta EAEko beste dozenaka herritan probatu zituzten. Eta Uribe Kosta ez zen salbuespena izan; eskualdea ez zen abiazio faxistaren erasoetatik libratu.

LAMIAKO, AUZORIK BONBARDATUENA. Altxamendu militarra 1936ko uztailaren 17 eta 18 artean gertatu zen arren, urtea amaitu arte Lamiakoko Delta lantegia ez zen hasi kartutxoetako letoizko kubotxoak eta balentzako zorroak egiten, Errepublikako armadarentzat; historialari batzuen arabera, horrek erakarri zituen matxinoak Lamiako bonbardatzera. Hala ere, auzoaren barrualdeari ere eraso egin zioten. Bestalde, handik gutxira, XIX. mendean hipodromoa egon zen zelaia lautu eta mundrunetzatu

Getxo

Areeta gutxienez sei aldiz bonbardatu zuten, 1937ko apiriletik ekainera artean; erasoetan hegazkin italiarrek eta alemaniarrek parte hartu zuten. Besteak beste portua, herrigunea eta Aita Hirukoiztarren fraidetegia kaltetu zituzten. Biktimen kopuruari dagokionez, lau baiezta ditzake Eusko Jaurlaritzak. Gainera, 1937ko apirilean, besteak beste Negubiden, Lertegin eta inguruko landetan jausi ziren bonbak, faxisten zerbitzura zeuden hegazkinak egindako beste hiru bonbardaketetan. Hil horretan, bonbardaketen ondorioz, 21 biktima zenbatu zituen Jaurlaritzak Getxon: bost hildako eta hamsei zauritu. Bestalde,


1937ko maiatzaren 13an eta 26an Algortara ere heldu ziren faxisten hegazkinak: Jaurlaritzaren arabera, lehenengoan ez zen biktimarik egon; bigarrenean, osterak, ez du hildakoen edo zaurituen gainera ezer zehazten. EHuko hainbat irakaslek egindako *Memoriaren ibilbideak* ikerketak Algortan izandako beste eraso baten berri ematen du: 1937ko apirilaren 24an, hildako bat eta bost zauritu egon ziren. Hala ere, lehenengo bonbardaketa 1936ko urriaren 21ean egin zen: hegazkin faxistek Areetako moilan zegoen Nazioarteko Guneari eraso egin zioten. *Euzkadi* egunkariaren arabera, zortzi hildako egon ziren; *La Gaceta del Norte* kazetak esan zuenez, bost izan ziren.

Leioa

Leioa 22 aldiz bonbardatu zuten hegazkinak, 1936ko abuztutik 1937ko maiatzera artean, Eusko Jaurlaritzaren arabera. Eraso gehienak Areetatik hurbil dagoen Lamiako auzoan izan ziren; Artatza ere bonbardatu zuten. Tren-geltokiak kalteak jasan zituen. Hala ere, esan dugunez, bonbardaketa gehienak Lamiakon izan ziren; 22 erasoetatik, 20 sufritu zituen auzo horrek. Beirategia,

aerodromoa eta auzoa bera kaltetu zituzten eztaudek. Besteak beste Luftwafferen Kondor Legioko VB/88, A/88 eta J/88 taldeek parte hartu zuten erasoetako batzuetan; Alemaniako gerra-industriak sortutako bonbardaketa-ri eta ehiza-hegazkin berrienak probatzeaz arduratzen ziren talde horietako pilotuak. Biktimen gainera datu zehatzik ez dago, baina ez ei ziren hemeretzi baino gutxiago izan.

faxisten erasoetatik libratu



zuten, aerodromo bat egiteko. Lamiakotik eta Sondikan bat-batean egindako pistatik irteten ziren faxistei aurka egiten zieten hegazkin errepublikanoek; hala ere, matxinatuen aparatuak askoz gehiago eta azkarragoak ziren. Itsasadarraren ondoan zeuden lantegiak defendatzea zen Lamiakoko hegazkinen helburu nagusia, baina Araban barrena ere hainbat eraso egin zituzten; Legutioko guduan, besteak beste. Lamiakoko pistak mila metroko luzera eta 250 metroko zabalera zeuzkan; arma antiaereo bakarra baino ez zegoen.

Matxinatuen lehenengo eraso 1936ko abuztuaren 10ean izan zen, eta ondoren beste asko etorri ziren. Bonbardaketek hildakoak eta zaurituak eragin zituzten. 1936ko azaroan hainbat ehiza-hegazkin heldu ziren Lamiakoko aerodromora: Legutioko guduan eta Bilboko zein inguruko industriaren defentsan parte hartu zuten. Emilio Mola jeneralak aginduta, 1937ko martxoaren 31n, Bizkaiairen gaineko erasoaldia abiarazi zuten indar matxinoek. Hala, apirilaren 3an, hiru bonbardaketa jasan zituen Lamiakoko aerodromoak: erasoak hainbat barrakoi eta zazpi hegazkin suntsitu zituen. Hilaren 22an ere bertaraino ailegatu zen abiazio faxista; hori dela eta, geratzen ziren hegazkin apurrak Sondikara eroan zituzten. Maiatzaren 11n, ostera, Lamiakoko lantegiei eraso egin zieten matxinoek, hiru hildako eraginez. Besteak beste, Luftwafferen Kondor Legioko VB/88, A/88 eta J/88 taldeek parte hartu zuten erasoetako batzuetan; Alemaniako gerra-industriak sortutako ehiza-hegazkin berrienak probatzeaz arduratzen ziren talde horietako pilotuak. 1937ko ekainaren 17an, Bilbo jausi bai-

no egun bi lehenago, Gezi Beltzak dibisioko soldadu italiarrak Leioara sartu zirenean, erabili ezin zitezkeen hegazkin bi aurkitu zituzten Lamiakoko aerodromoan; eta beste bi sutan zeuden. Horrez gainera, egoera txarrean zeuden hegazkin-motorrak eta bonbak topatu zituzten.

HILDAKO GEHIEN, ERANDION. Kondor Legioko *Heinkel* eta *Junker* hegazkinak Erandion ere eragin zuten izu-ikara, baita heriotza ekarri ere: 31 hildako eta 69 zauritu egon ziren bertan, nazien bonbardaketen ondorioz, Udalak emandako datuen arabera. Urtarriletik ekainera izan ziren erasoak; hala ere, apirilaren 22tik 26ra artean gertatu ziren bonbardaketarik bortitzenak. Hori dela eta, agintari erandioztarrek udalerriko historiako bizipen krudel horiek gogoratzeko ekitaldia egin zuten iaz, apirilaren 25ean; oroimen-ekitaldian, gertakari horiek gogoratzeko errotulua ipini zuten Ibarra kaleko eraikin bateko horman. Bide batez, guda-frontean hil ziren erandioztarrak ere gogoratu zituzten. Udalak emandako datuen arabera, 1936ko gerran 87 eta 111 herritar artean hil ziren.

Bonbardaketei dagokienez, Erandioko auzo gehienei eraso egin zieten. Baina Altzaga izan zen kaltetuena. Hainbat adituk diotenez, Bilbo Handia deritzoten horretan estrategikoa zen Erandio: Bizkaiko industriagune garrantzitsuenaren aurrean zegoen eta udalerrian ere lantegi handiak zeuden. Hala ere, Ibarra, Urioste, Jado, Obieta eta San Vicente kaleetako etxeek jasan zituzten erasorik bortitzenak. Hildako ugari suertatu ziren horietan. ◀

500

bonbardaketa baino gehiago egin zituzten indar matxinatuen zerbitzura zeuden hegazkinak (alemaniarrek eta italiarrak tartean) 1936ko gerran, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herrietan. Hala dio EHUKo hainbat irakaslek 2015eko azaroan plazaratutako *Memoriaren ibilbideak* ikerketak. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak 2017ko abenduan argitaratutako zerrendari begiratuta, ia 800era ailega litezke Euskal Herriko zeruetan eta lurretan aurrera eroandako bonbardaketa-misioak.

49

lirateke eskualdeko herriek jasandako bonbardaketak, Jaurlaritzak osatutako zerrendaren arabera. EHUKo hainbat irakaslek plazaratutako *Memoriaren ibilbideak* ikerketak, ostera, ez ditu Sopelako, Gortizko eta Plentziako erasoak jasotzen. Gertatu ei ziren beste batzuk bai.

40

eta 43 lagun artean hil ziren eskualdean egindako bonbardaketetan, Eusko Jaurlaritzaren arabera. Askotan «biktima» berba erabiltzen du, hildako-kopurua zehaztu barik. *Memoriaren ibilbideak* ikerketak, ostera, 73 hildako egon zirela dio.

Erandio

Hamar bonbardaketa izan ziren Erandion, 1937ko urtarriletik ekainera artean, Eusko Jaurlaritzaren arabera: Asua auzoan hainbat kale (Jado, Ibarra, Obieta, Urioste eta San Vicente), trenbidearen ingurua eta San Agustin eliza kaltetuak izan ziren; horrez gainera, hainbat etxe guztiz suntsitu zituzten bonbek. Urtarrileko bonbardaketetan hamazazpi

biktima egon ziren; horien artean hildako bat. Apirilean, 29 hildako eta 37 zauritu zenbatu zituen Eusko Jaurlaritzak. Maiatzean, *Euzkadi* egunkariak Erandioko bonbardaketan hamasei zauritu egon zirela aipatu zuen bere kronikan. Horren gaineko informazio gehiagorik ez ei dago. Hala ere, 1936ko gerran Erandion egindako bonbardaketetan 31 hildako egon zirela dio Udalak.

Sopela

Indar matxinatuen agindupean zegoen abiazioak Sopela bonbardatu zuen 1937ko maiatzaren 23an, Eusko Jaurlaritzaren arabera. Hala ere, ez dago informaziorik eraso horrek izan zituen eraginaren gainean; ez dago jakiterik biktimarik egon zen.

Berango

Bonbaketari faxistek 1937ko apirilaren 24an eraso zioten Berangori. EHUKo hainbat irakaslek egindako *Memoriaren ibilbideak* ikerketaren arabera, hildako bi eta sei zauritu egon ziren. Eusko Jaurlaritzak egindako zerrendan, ostera, ez da horrelakorik jasotzen.

Gortiz

Eusko Jaurlaritzak plazaratutako bonbardaketen zerrendaren arabera, hegazkinak 1937ko ekainaren 12an eraso zioten Gortizi. Besteak beste, hainbat etxe eta Itsas Erietxea kaltetu omen zituzten, *El liberal* egunkariak jasotako informazioan oinarrituz gero.

Plentzia

Uribe Kostako itsas-hiribildua birritan bonbardatu zuten hegazkin faxistek 1937ko maiatzan, Eusko Jaurlaritzaren arabera. Gutxienez, 14ko eta 23ko erasoetako batean, abiazio italiarrak parte hartu zuen. Dirudienez, ez zen biktimarik egon Plentziako erasoetan.

IBON LARRINAGA | Boxeolari itzubaltzetarra

«Aukera hau baliatu behar dut»



Joan den Gabonetan luma-mailara igotzea erabaki zuen Larrinagak, anemia eduki ondoren. HODEI TORRES

Boxeo profesionalean urte bi bete zituen Ibon Larrinaga Cruz Itzubaltzeta/Romoko gazteak, joan den astelehenean. 27 urte dauzka eta daborduko munduko gazte-mailako txapelduna gainditu eta Mediterraneoko gerrikoa irabazi du. Maiatzaren 12an New Yorkeko Madison Square Garden-en lehiatuko da.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Urte bi pasatu dira Ibon Larrinagak lehenengo borrokaldi profesionala jokatu zuenetik. Alejandro Igual KO utzi zuen, hirugarren roundean. Egunotan, Larrinagak baiezkua eman dio New Yorken borrokatzeari.

Madison Square Garden boxeogune mitikoan lehiatuko zara. Zer sentitzen duzu? Halako zirrara bat... Amildegi batetik begira egongo banintz legez. Madison ametsa da edozein boxeolarirentzat. Eta errespetua diot: ez dakit oraindino kontzientea naizen zer biziko dudana, baina poz-pozik nago.

Zelan lotu duzue borrokaldia? Aste Santuan deitu zidaten. Suposatzen dut rankinga, nire borrokaldiak eta nire estiloa iku-

Asier, sendiko beste borrokalaria

Asier Larrinaga boxeolaria «oso ondo» dabil, Ibon anaiaren arabera. Azken prestaketetan laguntza eskatu dio Ibonek. Bere ustean, «asko hobetu du, talentu handia dauka eta oso ondo egiten du. Eskuetan arazoak eduki zituen, baina osatu dira. Gaur egun Euskadiko txapelduna da eta Espainiakora doa. Harrobi polita daukagu herrian».

siko zituztela, eta horregatik aukeratu nautela. Beste aurkari bi eta hirurok geunden loteria-ontzian eta azkenean ni hartu ninduten. Deitu zidatenean esan zidaten: «Eskaini digute borrokatzea [Michael] Conlan-en aurka...». Ezagutzen dut, boxeolariok elkarren berri edukitzen dugu. Hura Olinpiar Joko bitan egon da eta profesional famatua da. Horrenbestez, esatera nindoan «agian pentsatu behar izango dut eta hotzean buelta bat eman, ohean, ondo erabakitzeko». Baina esan zidaten «...Madisonen» eta momentuan erantzun nuen: «Hartu, Madisonen boxeatu behar dut». Badago jendea bizitza osoa boxeoa ematen duena eta ez duena lortzen han egotea. Niri eskaini didate aukera hori eta hartu behar dut, Conlanen aurka edo Tysonen aurka izan arren. Horrelakoak baliatu beharra dago, ezustekoa emateko edota esperientzia bizitzeko.

Zer deritzozu Michael Conlan irlandarraren estiloari? Estilo oso amateurra dauka; puntuatzeko distantzia luzean borrokatzen du, baina, aldi berean, gustatzen zaio gogor jotzea. Aukera duenean eskua gogor botatzen du, gehienbat kanpotik, boleak eta crochetak erabiliz, eta alde horretatik arriskutsua da. Normalean boxeolari olinpiarrek ez daukate profil jotzailea; teknikoagoak izaten dira. Baina Conlanek eskua gogor botatzen du eta horregaz kontuz ibili beharko dut.

Urte bi bete dituzu profesionalean. Zer balorazio egiten duzu? Oso positiboa, gehienbat momentu alaiak eta pozgarriak izan dira. Bidean oztopoak ere egon dira, baina gainditu egin ditut, eta une politakaz geratzen naiz. Hamar garaipen izan dira eta behin bakarrik galdu dut. Baina garaipenez edo galtzeaz aparte egin dudana ibilbidea hartu gura dut kontuan: entrenamendu denetan gozatu dut, askotan gurago izan arren gehiago jan edo gutxiago korrika egin, baina momentu bakoitzatza gozatu dut, baita bidean ezagutu dudana pertsona bakoitzarekin ere. Eskertuta nago oso, boxeolari eta izan dudana ibilbideari.

Gazte-mailako munduko txapeldunari irabazi eta Mediterraneoko gerrikoa lortu izana berezia izan zen? Bai, momentu hartan aurkeztu nintzen orain daukadan aukeran legez. Joan nintzen, esaten den moduan, *karnata* gisa. Georges Leroy galdu barik zebilen, hamar garaipenakaz, Frantziako lehenengo sailkatua, munduko gazte-txapelduna... Ni boxeolari fina izan arren, ez nintzen inor; hara joan eta ezustekoa eman nuen. Oraingoan zailagoa izango da, baina horretara goaz.

Hainbat gazteren erreferente bihurtu zara. Ardura da zuretzat? Erantzukizun handia daukat. Boxeoa beti eduki du *makarra* itxura eta hori aldatu behar izan dugu. Gaur egun ere oraindino askorentzat hala da eta umeak 13 urteagaz sartzen dira, tentsio hori bizi gura dutenak, eta pentsamendu hori aldatu behar diegu. Ni bezalako gazteak ezagututa, errazagoa izan daiteke ideia hori aldatzea. Harro nago erreferente izateaz eta balioak aldarazten ahalegintzen naiz, bai gimnasioan eskolak ematen ditudanean bai entrenatzen dudanean ere.

Garrantzitsua da erreferenteak euskaldunak izatea? Niretzat bai. Gaur egun Athleticek badaukagu San Jose, orain dela gutxitik Iñigo Martinez... Herri honetan euskaldun gehiago behar ditugu. Ni ez naiz herri euskaldun batekoa; Itzubaltzeta/Romo ez da gaur egun oso euskalduna. Horregatik ahalegindu behar dut herri hau euskalduntzen eta euskaraz bizitzen. Baina ez bakarrik eskola-giroan, zaletasunetan ere: boxeoa, beste kiroletan, Athleticek inguruan, kuadrillan... Eta zure erreferente batek gutxienez lehenengo berba euskaraz egiten badizu, horrek lagun du. ◀

GINASTIKA ERRITMIKOA | Euskalgym campusa eta klubetako Euskal Liga Leioara

Nazioarteko gimnastika, Leioara

Leioako izena letra larriz idatzita dago euskal gimnastikaren munduan. Bertako Sakoneta gimnastika erritmikoko taldeak eskarmentu handia eta garaipen asko batu ditu, azkena maila absolutuko klubena Euskal Ligarena. Gainera, Euskalgym nazioarteko campusa Askartzan egingo da lehenengo aldiz.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Gimnasta leioaztarrek daukaten joerari eutsita, joan den apirilaren 7an klubetako Euskal Liga irabazi zuten, maila absolutuan. Azkoitian egin zuten balentria, bigarren eta azken jardunaldia jokatu ondoren. Saioa Agirre getxoztarra eta Izaro Martín leioaztarra nabarmendu ziren Sakonetako taldean. Agirre Lehenengo Mailako buru sailkatu zen, eta Martín podiumeko bigarren mailara igo zen umeen txandan. Hala, Leioakoek 61,85 puntu batu zituzten, Gasteizko Beti Aurrera taldekoek baino 1,80 gehiago. Egun eta herri berean, gimnasta leioaztarrek erakustaldia eskaini zuten oinarri-gimnasia lehiaketan. Horretan, umeen pilota-riketan nagusitu ziren Saioa Salinero, Henar Carrión, Naroa Ribeiro eta Ashley Fernández, hurrenez hurren podiumeko maila denak eta laugarren postua bete zituztenak. Laura Carrillo, Igone Arribas eta Judith Torralba teknikarien aginduetara ere jardun zuten Nahia Valladares eta June Yunzhu Mesak. Mazoen ariketan gazteek urrezkoa eta zilarrezkoa jantzi zituz-



Sako-Beti sariketa

Datorren ekainaren 9an eta 10ean, Sakoneta taldeak antolatuko du gimnasia-sariketa berezia. Beti Rítmica eta Beti Aurrera taldeak batera, lehenengo saioa Leioan egingo dute eta bigarrena, Gasteizen. Banaka edo binaka parte hartu ahal izango dute gimnastek.

ten. Azkenik, Miren García kadetea bigarren postuan sailkatu zen soka-ariketan. Azkoitian erakutsitako maila ona Gijónen berretsi zuen Sakonetak. Villa de Jovellanos sariketan, Araia Salazar (soka eta mazoak) eta Julene Eraña (zinta) bikoteak zilarrezkoa eskuratu zuen ume-mailan. Ostera, Naroa Fernández eta Maialen de la Peñak (senior) eta Eva Santamariñak eta Sol Morenok (lehenengo maila) urrezko dominak lortu zituzten. Banakako senior-sailkapenean, Maddi Otaolak irabazi zituen sailkapen orokorra eta mazo- eta uztai-ariketak, eta bigarren geratu zen zintan. Saioa Agirrek gimnasta dotoreenaren saria eta mazo- eta zinta-ariketak irabazi zituen.

EUSKALGYM CAMPUSA, UZTAILEAN. Aurreko hiru urteetan ez bezala, Euskalgym nazioarteko campusa Leioan egingo da, Askartza Claret Ikastetxean, Algortako Fadura kiroldegian beharrenean. Euskal Gimnastika Federazioak zabaldu duenez, campusean izena emateko epemuga ekainaren 12a izango da. Komenigarria da izen-ematea ahalik eta lasterren egitea, campus.euskalgym@gmail.com helbidera mezua bidaliz. Eskaerak helduko diren ordenan onartuko dituzte, dauden 250 lekuak bete arte. Egoitza behar dutenek 125 leku besterik ez dute edukiko. Izena ematean, gimnastek dagokien maila ipini beharko dute: eskolartekoa, oinarrikoa, federatua edo teknifikaziokoa. Campusa uztailaren 2tik 6ra egingo da, biak barne. Uztailaren 6ko arrastian, topaketa ixteko partaide denek erakustaldia egingo dute Askartza Claret ikastetxearen kiroldegian. Ikuskitunerako sarrera doakoa izango da. ◀

Euskararen laguna

Anima zaitetz euskaraz egiten Getxoko saltoki eta tabernetan! Ezagutzen baduzu, Euskararen laguna sarean sartu litekeen Getxoko saltokiren bat bidali WhatsApp-a 688675345. Sarean sartzeko gonbidapena egingo diogu.

Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua
94 466 00 10
euskara.zerbitzua@getxo.eus
www.getxo.eus/euskara

Nahi baduzu, euskaraz



Maskaradaren aurretik, Barrikadak hartu ditu Plentzia hiribilduak

Barrikadak Zuberoako maskaradetan egiten diren dantza-antzerkiak dira. Plentzian joan den apirilaren 15ean egin zituzten, Plentzia Kantagune taldeak antolatutako festan.

Argazkiak: Plentzia Kantagune / Itxas Argia



LEMOIZ | Zentral nuklearra

«Iberdrolak zentralaren ingurua berreskuratzeko erantzukizuna du»

Eusko Jaurlaritzak Iberdrolagaz negoziatzen ari da lur horien kontzesioa ahal bezain lasterren eteteko. Horrek esan gura du aukera dagoela ingurune hori berreskuratzeko Iberdrolak «ezertxo ere ez» egiteko, EH Bilduren arabera.



BERANGO | Preso politikoak

Saioa Sanchez estraditatu dute

Frantziak Espainiako poliziaren esku utzi du preso berangoztarra. Auzitegi Nazionalen epaituko dute, beste preso bigaz batera.



URIBE KOSTA | Bertsolaritza

Ekaitz Larrazabal *Katxo* bertsolari algortarrak irabazi du Bizkaiko Txapelketako Udabarri faseko lehenengo saioa, Bilboko BBK Aretoan.

GETXO | Aisialdia

ItzubalTxiki astialdi-taldeak hiru urte bete ditu; 2015ean sortu zuen begirale-talde batek, auzoko neska-mutilei aisialdi alternatiboa eskaintzeko.

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a - 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzio-burua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena, Esti Garcia
Argazkiak: Hodei Torres
Testuen orrazketa: Jon Gastelurrutia
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino, Idoia Ibarluzea
Kolaboratzaileak: Alazne Palacios, Kerman Santiago, Asier Barruetabeña
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKAlagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

**Producciones Serranori
esker, Seán Keane
artistaren kontzertuaz
gozatzeko 3 sarrera
bikoitz zozkatuko ditugu**

Apirilaren 29ko kontzertuaz gozatzeko
sarrera bikoitza lortu gura baduzu,
apirilaren 24a (martitzena) baino
lehenago bidali erantzuna, zure
izen-deiturak eta harremanetarako bidea
hona: administrazioa@hiruka.eus
edo 944 911 337.



Apirileko saria



Getxoko eta Erandioko bertsolaritza
saioez gozatzeko sarrera bikoitzak

**Bertsozale Elkarteari esker, sari hori zozkatuko
dugu HIRUKAlagun eta bazkide denen artean**
Zozketan parte hartzeko, bidali apirilaren 30a (astelehena) baino lehenago
zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona:
administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

**Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako
euskarazko komunikazio-taldearen
bultzatzailea eta partaidea izango zara.**

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

				6	7	3		5
9	3		4		5	7		
	6				9			1
				3	8			7
8				4				
3				2	6			
6		9			4	1		
				7	8			3
						5		

		6			8			9
	7					6	3	
5								
4	3		5				7	
2								
				4	9		1	
		3		8			5	
		1		5	6	7		
7			1					

Soluzioak

Gogoan har egizu
1etik 9ra arteko
zenbaki denek
agertu behar
dutela zutabe,
ilara eta azpilauki
bakoitzean.

3	9	8	7	2	6	1	9	4	5	7
2	1	3	5	7	4	2	1	3	5	7
1	5	1	3	4	8	7	9	5	1	3
1	5	1	3	4	8	7	9	5	1	3
6	9	4	3	7	8	5	2	1	5	6
8	7	2	1	7	5	6	9	4	8	7
7	8	1	7	5	6	9	4	8	7	5
4	8	9	5	2	6	8	7	1	4	8
5	2	9	8	1	7	5	6	9	4	8
3	4	6	7	1	8	5	2	9	8	7

4	9	5	2	6	1	9	4	8	7	5
3	9	8	7	2	6	1	9	4	8	7
1	5	1	3	4	8	7	9	5	1	3
1	5	1	3	4	8	7	9	5	1	3
6	9	4	3	7	8	5	2	1	5	6
8	7	2	1	7	5	6	9	4	8	7
7	8	1	7	5	6	9	4	8	7	5
4	8	9	5	2	6	8	7	1	4	8
5	2	9	8	1	7	5	6	9	4	8
3	4	6	7	1	8	5	2	9	8	7

Hitza emanda

Memoria

81 urtez
oroitzen hasita,
zerua bilakatu
zitzaigun faxista.
Sekula ez da egon
ahantzuran Gernika,
memoriak kiskaltzen
baitu dinamita!



**MADDALEN
RUESGAS
RASINES**
Berango



Sukaldean **Gure Etxea** taberna

Kalitatezko eta bertoko produktuen topagunea



Gure Etxea

Caja de ahorros
kalea, 14

Itzubaltzeta/Romo
94 463 68 80.

10:00etan zabaltzen
dute egunero,
martitzenetik zapatara.

Bazkaltzeko ordutegia:
13:00etatik 15:30era.

Afaltzeko ordutegia:
20:30etik 23:00etara.

Aste-akabuetan afari
ordutegia ordu batez
luzatzen da.



TESTUA: **ESTI GARCIA CHACON** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ►

Erraz topatuko duzu Itzubaltzeta/Romon oso ezaguna den Gure Etxea taberna, metrotik irten eta eskumara joanez, oinezkoen kale batean. Gainezka egoten da aste-akabu guztietan, mahai denak erreserbatuta. Jatetxean mota guztietako jendea egoten da. Gazteek pintxoak jan ohi dituzte; pertsona nagusiek, aldiz, gurago izaten dute menua. Kartan denetariko aukerak daude: itsaskiak, arrainak edota txingarretan prestatutako txuletak. Joseba Andoni Irustak 26 urte daroatza gurasoek 1977an sortutako Gure Etxea defendatzen.

Txingarretan prestatutako atungorri-mendrezka eskaini digu Irustak oraingoan. Plater arrunta, baina kalitatezko produktukaz egindakoa. Prestatzeko, atungorri-mendrezka txingarretan egin du. Jarraian, hari laguntzeko, tomate-konpota prestatu du, bertoko eta hurreko produktuk erabilia (tomatea, piper berdea,

Atungorri-mendrezka txingarretan

Osagaiak:

Atungorri-mendrezka,
tomatea, piper
berdea, tipula, porrua,
sesamo-haziak, tipulina.

tipula eta porrua). Horren ondoan porru frijitu batzuk ipini eta dotorezia-ukitua emateko, sesamo-haziak eta tipulin zatiak bota dizkio gainera mendrezkari. Horregaz batera ardo zuria edatea proposatu digu jatetxeko ugazabak.

Begientzat margolana dirudi Irustak aurkeztu berri digun platerak. Ahoan, zapore leunekoa eta samurra bada ere, kontraste izugarria ematen dio mendrezkaren azal kurruskariak. Osagai denak batera dastatzean konturatu gara konbinazio ezin hobea dela, karta barruan ezinbestekoa.

Gure Etxea tabernaren giro zoragarria eta produktuen kalitatea nabarmendu ditu ugazabak. Gainera, menua osatzen duten platerak bertoko osagaiakaz egiten saiatzen dira beti. Tabernara hurreratzeko edozein momentu da egokia, martitzenetik zapatara, goizeko 10:00etatik aurrera. Egunero ematen dute bazkaltzen eta afaltzen, eta barikuetan eta zapatuetan ordu batez luzatzen dute afaltzeko ordutegia. ◀